


# uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2020ko apirila |||226. zenbakia |||



## ZEINEK ESANGO ZUEN

Koronabirusak goitik behera aldatu ditu herritarren bizitzak, ustekabean 20



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)

**dica** @www.dica.es

Arretxe 9  
20730  
Azpeitia  
943857244

Arragueta 27  
20600  
Eibar  
943857244



**MILAR  
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak

  
**Cooking  
& Chef**

Julio Urkixo, 16 bis - AZKOITIA  
943-65 18 97  
www.milar.eus



TEKNOLOGIAN eta JOERETAN, urrats bat AURRETIK

**dyson Miele**

# BIYONA

## BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea      sukaldea  
bainugela      ...  
leihoak  
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



# Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · [www.biyona.net](http://www.biyona.net)



# uztarria

**Argitaratzailea.** Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.  
**Egoitza.** Soreasuko sormen gunea, 1 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.** uztarria@uztarria.eus  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** ISSN 1576-7337  
**Zenbakia.** 226.a (2020ko apirila)  
**Urtea.** XXI.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685780412 / uztarria@uztarria.eus  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hileru  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Iñaki Martinez  
**Webgunea.** [www.uztarria.eus](http://www.uztarria.eus)

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

## ||| 2020KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



### mamia

**Elkarrizketa.** Ainhoa Alonso geologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearekin solasean **04**

**Klik!** Azpeitia hutsik, airetik eta lurretik begiratuta **16**  
**Elkarrizketa.**

Zaldibarko zabortegiko lur jausian hildako Alberto Sololuzeren alaba Nahiak patxadaz hitz egin du bizitzen ari diren egoeraz **26**

### jakiteko

**Atzera begira.** Asko dira fraide ikastera Arantzazura joan ziren herritarrak **34**

Ba al dakizu uztarria.eus webguneak hileko bisiten marka guztiak hautsi zituela joan berri den martxoan? Uztarria

## Izan uztarriaren bazkide (Telf.: 943-15 03 58)

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

**30** euro dira urtean.



**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# AINHOA ALONSO

geologoa

## “Paisaia etengabe ari da aldatzen”

**EHUko Geologia graduko Mineralogia eta Petrologia Saileko irakaslea eta petrologia igneoan aditua da. Beste hainbat adar ere baditu aztergai. 📝📷 Anartz Izagirre**

**A**zpeitiko nahiz inguruko orografia guztiak milioika urte ditu, eta geologoek egitura hori zertan datzan zein material horiek nolakoak diren aztertzen dute, besteak beste. Ainhoa Alonsoren arabera, inguruko paisaia etengabe ari da aldatzen, eta klima aldaketak ere eragina izango du paisaiaren eraldaketa horretan.

### **Nola laburtuko zenuke Geologia zer den?**

Geologiak lurtean ditugun materialak zerez eginda dauden aztertzen du, eta material horien egituren zein horietan eragiten duen prozesuaren berri ere ematen du. Besteak beste, historian zehar, gure planeta, bertako materialak, prozesuak zein organismoak nola

joan diren aldatzen ikertzen dugu geologok. Geologia funtsezkoa da gizartearen beharriaz erantzuteko, eta eragin zuzena eta erabatekoa du gure bizitzetan, hala nola arrisku naturalak, baliabide naturalen kudeaketa jasagarria eta aldaketa klimatikoa ulertzeko.

### **Beraz, hainbat adar dituen zientzia da.**

Bai, barne-atal ugari daude Geologiaren barruan. Besteak beste, mineralogia, kristalografia, petrologia, paleontologia, sedimentologia eta geofisika, batzuk aipatzearen. Petrologian, adibidez, arroken jatorria, eraketa eta historia aztertzen dira beste hainbat gairen artean, eta hiru atal nagusitan banatzen da adar hori: pe-

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1970eko urriaren 25a.

|||**Herria.** Azpeitia.

|||**Bizitokia.** Azpeitia.

|||**Lanbidea.** Geologoa eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

trologia sedimentarioan, igneoan eta metamorfikoan.

### **Zein adarretan zara espezializatua?**

Petrologia igneoan naiz aditua, eta besteak beste, magma bat nola sortzen den, nola hozten den eta arroka bolkanikoak zein plutonikoak nola bilakatzen diren aztertzen dut. La Serenako [Bada-joz, Espainia] arroka plutonikoen inguruko doktorego tesia egin nuen, eta egun hainbat material arkeologikoren ezaugarriak aztertzen ari naiz. Euskal Herriko

eta Espainiako hainbat aztarnategitan erabiltzen zuten zeramika erromatarra aztertzen ari naiz, baita zeramika horiek egiteko erabiltzen zituzten lehengaien jatorria ere. Bestalde, antzinako giza-kien eta animalien migrazioak eta dietak ikertzen ditut, isotopoen azterketen bidez.

### **Besteak beste, lurraren historia lantzen duzue. Jakin al genezake noiz sortu zen Azpeitia eta ingurua?**

Azpeitiko eta oro har gure bailara-ko arroak 250 milioi urte iraun zituen prozesuan eratu ziren, eta inguruan hainbat garaitan sortu ziren arroka eta egitura ugari ikus daitezke. Azpeitiko herrigunearen azpialdean Jurasikoko kareharriak ditugu; adibidez, denok





“GeoLogia beharrezkoa da gizarte beharrei erantzuteko”

“Azpeitiko herrigunearen azpian jurasikoko kareharriak daude”

ikusi ditugu Alberdieneako lursailetan egiten ari diren etxeen azpian daudenokareharriak, eta bertan ammonite fosilak aurkitu dituzte. Jurasiko garaiko kareharri horiek itsaspeko sakonera txikiko plataforma batean metatu ziren. Izarrazko mendizerra ere kareharritz osatuta dago; Behe Kretazeoan eraturako fosilez beterik dago ingurune hori.

Etxebeltz-Izarrako lur eremuan, berriz, Triasiko garaiko buztina, gatza eta igeltsua daude. Garai hartan, duela 220 milioi urte inguru, sakonera txikiko itsaso zabala zegoen han, eta klima lehorrak lagundurik, gatzak eta igeltsuak sortu ziren. Adineko herritarrek gogoan izango dute leku horretan zuloak zeudela eta lurra hondoratu egiten zela. Nire amak, adibidez, gogoan du txikia zenezan debekatuta zuela jolastera gune horretara joatea. Etxebeltz-Izarrako igeltsu eta gatz horiek hausturei esker azaleratu ziren, eta Urrestillan eta Errezilen ere ikus ditzakegu material horiek.

Oso egitura politak ditugu inguruan. Arauntza mendira igo eta Izarraz aldera begiratzen badugu, zamalkamenduen toles ederak ikus daitezke, hau da, arroka zaharrak gazteagoen gainean jartzen direnean sortzen diren hausturak. Horrez gain, ederra da Hernioko *u* itxurako tolesa ere.

**Nola eratu ziren inguruko mendiak?**

Gure inguruko mendietan ikusten ditugun tolesak eta hausturak orogenia alpetarraren ondorio dira, eta duela 65 milioi urte ger-

tatu zen hori. Indiako ozeanoren irekiduraren ondorioz, Afrikako plakak Iberiar penintsula iparralderantz bultzatu zuen Europako plakarekin talka eginez, eta itsaso azpian zeuden materialak tolestu, apurtu eta altxatu eta mendiak sortu ziren.

### **Kareharria da nagusi inguruko lurretan. Zer berezitasun du material horrek?**

Kareharria karbonatoz edo kaltzitaz osaturiko arroka sedimentarioa da. Uretan ugariak dira kaltzio eta bikarbonato ioiak, eta bien baturak kaltzita osatzen du. Gehienetan ur garbietan, epeletan eta sakonera gutxiketan erazten dira kareharriak; batzuetan, maskorrez, koralez eta beste hainbat materialez osatuta egon ohi dira, eta beste batzuetan, lakuatoko eta ozeanoetako uretako kaltzio karbonatoaren hauspea-

keta zuzenez erazten dira. Kareharriak lurrunketaren ondorioz ere sor daitezke; adibidez, kobazuloetan zorura erori aurretik ura lurrundu egin daiteke, eta gunean disolbatuak dagoen kaltzio karbonatoa sabaian metatu eta estalaktita bat sor daiteke.

Gaur egun, kareharriak erazten ari dira munduko hainbat ozeanotan; besteak beste, Karibe itsasoa, Indiako ozeanoan, Ozeano Bareko hainbat uhartetan eta Indonesiako uharteetan.

### **Zein da gure inguruko paisaia geologikoak sortu zentetik izan duen bilakaera?**

Paisaia etengabe ari da aldatzen. Askotan, partzialki borratu egiten da, baina geologok arrasto horiek irakurri eta paisaiaren garapenaren etapak berreraiki ditzakegu. Erliebeak dituen ezaugarri geologikoetatik (morfologia, egitura, konposizioa...) abiatuta, gaur egunera arte gertatu diren aldaketak zeintzuk diren ezagutu eta etorkizuna iragarri dezakegu. Gaur egungo paisaiak orogenia alpetarrean eratutako mendi-erliebeen higadurak eragin ditu, sistema karstikoak oso garatuta daude, eta ibaiaren dinamikaren arrastoak zeintzuk diren ere ikus dezakegu. Hemendik milaka urtera, erosioek beren lana egiten jarrituko dute, eta mendiak desagertuz joango dira. Urola ibaiak

ere bere lana egiten jarraituko du; azpiko arroak higatu egingo dira, eta agian, ibaiaren ibilbidea aldatu egingo da.

### **Klima aldaketa pil-pilean dago azkenaldian. Nolako eragina du klima aldaketak lurrazalean?**

4.600 milioi urtetan klima aldaketa ugari jasan ditu lurrak: batzuk, pixkanaka gertatutakoak; eta besteak, bat-batekoak. Aldaketa horiek ingurune geologiko ugarietan pasatzen dira: itsasoko eta lekuatoko sedimentuetan, izotzetan, koral fosiletan eta abar. Garbi dagoena da gizakion bizimoduak eragin zuzena duela prozesu geologikoetan, eta luiziak, ekaitz tropikalak eta uholdeak bizkortzen dituela, baita baliabide naturalak hondatu ere.

Itsas-maila, adibidez, oso sentikorra da, eta itsasoko mailaren igoeraren abiadura handitzeak eragin kaltegarriak ekarriko lizkiguke. Klima aldaketak itsasertzean du eragina. Bestalde, estalagiten azterketak eta kobazuloetako sedimentuetan dauden aztarren ikerketa geokimikoak iragan hurbilean izandako klima aldaketak zeintzuk diren ezagutzeko balio digu geologooi. Klima aldaketa horiek nolakoak izan ziren ezagutzeak etorkizuneko egoera iragartzen laguntzen digu.

### **Lurrikaririk edo bestelako**

“Klima aldaketak itsasertzean du eragina”

“Kareharriak ari dira erazten munduko hainbat ozeanotan”

### **fenomeno naturalik izateko aukerarik ba al da Euskal Herrian?**

Euskal Herria ez da zonalde sismikoa, nahiz eta lurrikara batzuk gertatu izan diren. Lurrikaririk gehienak Pirinioetako zonaldean gertatzen dira. Martxoaren 16an, adibidez, Goizuetan [Nafarroa] lurrikara txiki bat izan zen, 18 kilometroko sakoneran. Kontuan izan behar dugu gure planeta dinamikoa dela, eta mugitu egiten direla plaka tektonikoak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan arrisku sismikoen banaketa mapa bat dugu, baita emergentzia plan bat ere.

### **Nolako eraginak izango litzuke lurrikara batek Azpeitian?**

Esan bezala oso aukera gutxi dago Azpeitian lurrikara bat gertatzeko, eta halakorik gertatuko balitz, eraginak oso ahulak izango liriteke.\*

“Denborarekin, mendiak desagertzen joango dira”

“Azpeitian Lurrikara bat gertatzeko aukera gutxi dago”



ESKAERAK: \* 697 25 02 92 - 943 15 00 95 | ainhua@kimubat.eus

KIMUBAT  
— SAKON —

Udaberrirako prest?

Telefono bidezko salmenta jarri dugu martxan!

Barruko zein kanpoko landareak,  
dekorazioa, animalientzako elikagaiak...

\*Gutxieneko eskaera, 40€



# Bizitza eraikitzen

**E**txean beti izan dugu erakuntzan dabilzanekiko begirunea. Ez alferrik. Aitak bizitza osoa eman zuen lanbide horretan. Edozein tokitara gindoazela ere, "han, nik egindako..." entzutea ohikoa zen. Bitartean, autoaren atzeko leihoan nondik gindoazen begira, arretarik galdu gabe, ume nahiz nerabe, barre egiten genuen, ba ote zen munduan berak eraiki gabeko zer edo zer.

Esku handiak zituen. Lanean zailduak. As-toak hortzaka egin eta giza geografiaren beste koordenatu batzuetako haragiz txertatuta zeukan behatz punta. Beste garai bateko ibilerak. Beste garai bateko jendea. Baina ez hain aspaldikoa. Denetarik egitea tokatu zitzaion. Denetarik ikustea tokatu zitzaion. Izan ziren Dumperraren azpian zapalduta geratutako lankideak, besoz beso lanean ibili eta haien garrasien aurrean ezer egin ezinik etxeratutako egunak. Zaldibarrek ikusarazi dizkigu ezkutuan izan diren errealitateak. Errutina izan da bizitzak irabazien menpe jarzea, zeinbaitek oasi deitutako honetan.

Ez dugu urrutira begiratu behar infernua izandako labeak sumatzeko. Lantegia gelditzen zenean, korrika eta presaka egin behar izaten ziren konponketak, produkzioa berrabiatu aurretik. Nahiz saninazioak izan. Nahiz uztaileko edo abuztuko egun sargoriek arnasa hartzea galarazi. Enparan atzean utzi ziguten urte hartan txosnak jartzen, Itsasiren eraikin zaharra zegoen lekuan. Gogoan dut nola ezkutatu nintzen txosna atzean infernutik etxerako aitaren bisaia ikusi bezain pronto. Ezin izan nion aurrez aurre begiratu. Ez ginen konturatzen poltsikoan genuen diruak zenbat balio zuen. Festa, parranda eta lagunartea, ez genuen gauza gehiegirik buruan. 15-16 urte, mundua jateko irrikaz.

Agintariak zinta moztera bertarutzen ziren errepele edo tunelen bat bukatutakoan. Lokatzez leporaino, tente ibili ezinezko aldape-tan, hondeamakina handiekin bizitza arriskuan jartzen zutenak beste batzuk izan,



|||||olatx aranguren|||

|||Ideiak, printzipioak edo kapitala giza bizitzaren gainetik jartzen jarraitzen dugu



ordea. Gaur egun, etorkinentzat erreserbatuta ditugun lanbide nahiz ordutegiak bertako baserritarrek eta Espainiatik etorritakoek betetzen zituzten orduan. Zeregin luze, gogor, itsusi, presazkoren bat zenean, bokata ardo botilarekin eskaini eta ohi baino diru gehiago ordainduko zitzaizela esanez, lanean gerarazten zituzten zenbait gautan. Egunduan osoz lanean aritu ondoren. Kapitala irabazle orduan ere. Lanerako bizi izan zen urte askoan.

## Odolustutako jendartea

Soinu txikia jotzen ikasi nahi nuela eta, Gabonak lan ordu estrak sartzen pasatu ondoren jaso nuen Erregenetan infernuko hauspo distiratsua. Handik urte batzuetara, bion arteko gatazka iturri bihurtu zen. Nerabezaroan trikitia baino beste musika mota batzuk nahiago.

Bizitza ez da erraza batzuetan. Nahiz eta nagusietako bat izan, estimatua zuen Inaxio Uri. Hormigoia botatzea bezalako presazko lanetan, bat gehiago balitz bezala, beren ondoan lanean jartzen zekiela zioen. Hori ez zuela edozeinek egiten. Estimua bi norantzakoa zen. 35 urtetik gora egin zituen aitak haientzat lanean. Zaildutako makinista zen. Esperientzia gaztetasunaren aurrean.

Euskal gatazka gazteenei gerturatzeke modua izan dut azkenaldian lanean ikergai. Belaunaldi gazteenek ez dute bizi izan; zenbaitek ez du inoiz halakorik entzun. Gatazkak gurean aurpegi asko izan ditu. Odolustutako jendartea gara. Ideiak, printzipioak edo kapitala giza bizitzaren gainetik jartzen jarraitzen dugu.

Bizitza xurgatu zieten soldataren truke. Euskal gatazkaren mataza ez da soilduko isilean geratutako bizitza hauek ere ez baditugu mahai gainean jartzen.

Eta hiru urte esku handi haiek estutu gabe, hiru urte bizitza eraikitzen.\*

# Irakaspenak

**N**ik hitz hauek idaztetik zuk irakurtzera bitartean koronabirusak gure artean egingo duen bidea aurreikustea ezinezkoa zaidanez, ez zaitut aspertuko iragarpen ustelekin; eraikitzaileago eta interesgarriago deritzot pandemiaren aurkako neurri zaparradaren erdian josi diren babes eta elkartasun sareei erreparatzea. Jakinekua da: bai Azpeitian, bai Azkoitian, bai Zarautzen, bai Zestoan, bai Zumaian, bai beste hamaika herritan, ehunka boluntario antolatatu ziren krisia lehertu berritan, larrialdian suertatutako jendeari laguntza oinarritzkoena eman ahal izateko. Beharra sumatu, behar horri erantzuteko modua bilatu eta antolatu egin zen jendea, dirutan irabazirik lortzeko asmorik gabe. Ordutik, laguntza praktiko ukaezinaz gain, ordainezina den irabazi klase bat eskaini diete boluntario sare horiek beren auzo eta herriei: elkarri eusteko eta elkar indartzeko ahalaren kontzientzia.

Herri askotan, gehienetan ez esateagatik, udalarekin koordinatu dira elkartasun sareok. Hala izan da Azpeitian ere, badakizu. Zarautzen, ez. Kontrakoa: udal ordezkari zenbait, alkatea bera buru, boluntarioen lana gutxiesten eta desitxuratzen nabarmendu dira, sarea indargabetezko helburu argiarekin, Eusko Jaur-laritzaren kanpaina batek antzeko mezuak zabaltzen zituen bitartean. Halaxe ulertzen dute batzuek auzolana, antza. On dagiela. Boluntario sareek berean segitu dute, hala ere. On davigula. Segituko ahal dute koronabirus ostean ere larri ibiliko direnei laguntzen, argi baitago pandemiak, jendearen osasun fisikoari erasan dion bezalaxe, kalte sozio-ekonomikoak ere ekarriko dituela. Ari da jada ondorioak izaten. Hasteko, bizitza guztian gogoratuko dugun esperientzia bat delako eta, esperientzia hori, askorentzat, traumatikoa izango delako. Eta ez naiz ari birusak eragindako heriotzei buruz bakarrik. Ezta ohiko irabazien parte bat irabazteari utziko diotela-eta mainaka ikusten ari garen jauntxoei buruz ari.

Urteetako politika publiko pribatizatzaileen



||||||| **amagoia gurrutxaga** |||||

||| Eskerrak ipurdi horri zerbitzu publikoan sinesten duten milaka profesionalak eusten dioten!



eraginez, osasun sistema ustez zoragarri baten ipurdia erabat bistan geratu da. Eskerrak ipurdi horri zerbitzu publikoan sinesten duten milaka profesionalak eusten dioten! Eta pandemiari aurre egiteko orduan, langileen eta gizarte osoaren osasunaren eta eskubide indibidual eta kolektiboen aurkako neurriak hartu dituzte agintariak, enpresari handien interesak lehenetsiz. Lanik gabe geratu da jende ugari: batzuk, behin-behinean; ez dakiugu zenbat, behin betiko. Eta lehendik ere santututa zeuzkaten supermerkatuak jainkotu egin dituzte oraingoan, gure elikagaien kontrol erabatekoa beren esku utziz, eta –lehenetsunezkoztat ez diren produktuak saltzeko denak itxiarazi ostean– lehenetsunekoak ez diren produktuak saltzen utziz. “Monopolio” edo “lehia desleial” dei dakiok horri, baina Alarma Egoera izena jarri diogu. Baserritarrekin akordatu dira batzuk, sikiera. Horretan, Azpeitian zein Zarautzen, ondo.

## Zertarako?

Etxe barruan sartu gaituzten arte ikusi ez ditugun beste hainbat kontu ere badira. Bat: zaharrek in bat, emakumeak eta haurrak direla zaugarrienak hondoratze garaikideotan ere. Bi: klase sozialak eragin zuzena daukala halako egoerei aurre egiteko aukeretan. Eta hiru: sinetsita geundela Txinan hasitako zerbaitek ez zigula guri eragingo, nola ez ba; zertarako erosi guk maskarak, zertarako eduki ospitaleak prestatuta, zertarako egin kasu Osasunaren Mundu Erakundeari? Ez dizut erantzunik emango. Erantzun guztiak badakizkizu, dagoeneko. Beharko.✘



SENIDE BAT,  
LAGUN BAT,  
HERRITAR BAT  
AZPEITITIK KANPO  
BIZI DUZULA?




OPARITU  
UZTARRIA  


EGIN ZAITEZ BAZKIDEI!

943-15 03 58 (LUZAPENA 6) deitu edota [uztarria@uztarria.eus](mailto:uztarria@uztarria.eus)-era idatzi

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

# Euskaraz egitea, aukera

Herritarrak errenta aitortpena euskaraz egitera bultzatzeko kanpaina jarri dute martxan hainbat erakundek. Aitorpena egin zuten azpeitiarren erdiek baino gutxiagok gauzatu zuten euskaraz 2019an.  Uztarria

**E**rrenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dute martxan Uemak, udalek eta beste hainbat erakunde publikok aurten ere. Koronabirusa tarteko ezarritako alarma egoera dela eta, aurrez aurreko hitzorduak bertan behera utzi ditu Gipuzkoako Foru Alundiak oraingoz, baina halere, kanpaina laster jarriko du martxan foru erakundeak.

Administrazioarekin hartu-emana euskaraz izan dadin lanean jarraitzen dute erakundeek. Are gehiago: Uemak adierazi duenez, urtez urte handitzen ari da errenta euskaraz egiten duten euskal herritarren kopurua, baina kopuru hori oraindik errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik "urrun" dagoela nabarmendu du.

Bestalde, Uemak adierazi du euskararen normalizaziora bidean, "beste urrats bat" dela errenta aitortpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea,

eta gaineratu du horretarako beharrezkoa dela herritarren babesa eta parte-hartzea.

Lurralde bakoitzeko foru ogasunak tokiko errealitate soziolinguistikoaren arabera moldatzen du kanpainaren mezua. Gipuzkoako Foru Aldundiak, esaterako, aurten hasi eta datozen lau urteetarako, 100.000 zergadun ogasunarekin euskaraz izeneko egitasmoa jarriko du martxan. Kanpaina horren leloa *Ogasunarekin euskaraz* izango da.

Urtero lehez, iaz errenta aitortpena egin zuten herritarren hizkuntz irizpideei lotutako datuak ere plazaratu ditu Uemak. Azpeitian, guztira, 7.836 pertsonak egin zuten aitortpena 2019an, eta horietatik 3.325ek egin zuten euskaraz egitearen aldeko hautua; hau da, erdiek baino gutxiagok. Aurten zenbat gehiago izango dira aitortpena euskaraz egingo duten azpeitiarrak?\*



Alex Txikon.

## ESANA DAGO

“Aurten, saiatzeko batere aukerarik ez digu eman

Everestek. Baina fisikoki inoiz ez bezala sentitu naiz, eta psikologikoki ere indartsu itzuli naiz”

“Bolada batean alde batera utzi nahi ditut neguko espedizioak”

ALEX TXIKON  
mendigoizalea

“[‘Athalase’] Diskoarekin historia bat, trantsizio antzeko bat, landu nahi izan dugu”

JOSU USOBIAGA  
Ro musika taldeko kidea



# Parranda

**Z**uk hau irakurtzeko beta edo astia harzen duzunean, ez dakit ze egoeretan izango garen. Martxoaren 10a da ni hau idazten ari naizenean (zorionak, Txapel, tarteka kafe bat ordaintzeak ez dik kalterik egingo), eta egoera ez da txantxetarakoa.

Baina txantxarik eta graziarik gabe, zertarako bizi. Ni neu, *hermano jesuita* izateko oposaketak prestatzen ari naiz. Ez naiz inoiz gau-txori *toptena* izan, baina Gau Txorin ordu batzuk sartutakoa naiz. Eta kitto, aski da, nahikoa eta gehiegi! Jendetza dagoen lekue-tan deseroso sentitzen naiz, lau hankako

mahai txiki baten inguruan elkartutakoekin nahikoa eta sobera. Zu lasai, ni neu naiz xelebre samarra. Aspaldian kaferik ordaintzen ez didan goiko horrek dioen bezala, *xelebrío*.

Baina ez naiz ni, neurea ontzat hartu eta besteena gaitzesten ibiltzen den horietakoa. Nik neure etxea defendatuko dut, baina besteena erasotu gabe. Batere koherentea ez naizela pentsatuko duzu, baina parrandazaleak, juergazale golfoak eta artistak miresten ditut. Oiarzabal, Olaizola edo Landa adina. Parrandan gozaten duten horiek, gaueko artista horiek, beti eman didate sekulako inbi-



## txetxu urbieta

dia. Festa odolean daramatenek sekulako bizi-poza ematen didate.

Inauterietan ez dut kalerik zapaldu, gogorik eta beharrik ere ez, baina Txikiteo Eleganteko goseak edo astelehen gaueko mozorro festako ilusioak guztiz liluratzen naute. Igande arratsaldeko lauretakoa, berriz, markatik fuerakoa da. Ez ote da *Botijo* kuttunaren oinordekoa inoiz oldartuko!

Idolo lagunok, zuek segi gozaten. Urbietak *hermano jesuita* izateko oposaketekin jarraituko du. Lasaitasuna, patxada eta meditazioa. Uummmmmmm.\*

## IKUSTEKO!




### ▲ HONETARAKO ERE BALIO DEZAKETE ARGOILEK.

Bizikleta kandatzeko ere balio dezakete argoilek. Esan beharrik ez dago. Bizikletak uzteko gune zenbait jarri zituen Azpeitiko Udalak duela hilabete dezente, baina bada haiek erabili ordez, bestelako ideiak izaten dituenik. Egia esan, sokamuturra egiten den orduz haratago, zer erabilera dute herrian bat baino gehiago diren argoilek? 📞📷 **Uztarria\***



## ||| MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... |||



### *Koronabirusa besterik ez*

**GIZARTEA.** Badirudi mundua gainera etorri zaigula, eta hemen bukatzen dela dena. Hamaika teoria daude, baina nik argi daukat, Amalurrak sortu duena da... Koronabirusaren aitzakiarekin txakurrak inoiz baino gusturago, hori bai: goizean amarekin, gero semearekin, eta aitarekin ere bai, nola ez... Beti zorioneko txakurrak kailean.




||| Juan Carlos Arellano |||



### *Etxean sartuta*

**GIZARTEA.** Guztiontzat da gogorra etxean sartuta egotea, bereziki osasunagatik ateratzea eta aire librea behar dutenentzat. Lehentasunak bermatu behar ditugu, horrela legeak eta arauak "saltatu" eta bizimodu duina lortzeko egoerak eta moduak antolatu. Denon artean.



### *Etxetik Mundura*

**KOMUNIKABIDEAK.** Etxetik mundura. Egitasmoa ez da makala. Azpeitia mundua hartuta (Uztarriaren esparru naturala) ikusten dugu, zenbait eragilek hartu duten ekintzen dinamika. Publikorik gabe bada

ere, mundura zabaltzea; egiten dutena ez da batere makala. Eskertze-koa da etxetik, telebista alde batera utzita, badagoela zer ikusi eta zer ikasi erakustea. Eta dena KM 0. Gora zuek.✘



||julene frantzesena||

## Ai, kafe uneak

**B**etiko legez, martxoaren lehen egunetan egin genuen aldizkari honetarako gaiak aukeratzeko lantaldeko bilera. Nahiko azkar erabaki genituen gaiak, eta ardurak banatu ere bai. Gaixoak gu; etorriko zenaren berri izan bagenu...

Lehen astea baliatu genuen gaiak eta lotzen hasteko, baita kolaboratzaileei hileko ekarpenak noizko bidali behar zituzten esateko ere. Dena betiko martxan, dena ondo.

Hilaren 11. Hala zioen Urolako Komunikazio Taldera zuzendaritzak lantaldean zabaldu zuen barne oharra: "Koronabirusa dela eta, prebentzio neurriak UKTko lankideontzat". Eta segidan ahal bezain pronto etxetik lanean hasteko baliabideak egokitzten hasi ginen.

Etxetik ari gara lanean ordutik, eta egia esan, ez da erraza izan lantaldea koordinatzea eta produktuak egitea. Baina egin ditugu, moldatu gara. Bilerak, bilerak eta bilerak, eta egoeraren ondorioz, aldaketak eta aldaketak.

Eta hauxe da emaitza. Uztarría aldizkaria kaleratu dugu modu digitaletan, gaiak moldatuta, aldatuta, birpentsatuta. Erabaki bat ere hartu dugu: paperezko edizioa alarma egoera bertan behera uztean banatuko dugu.

Konfinatuta gauden honetan gauza bat gelditu zait garbi: egoerara moldatzen badakigu pertsonok. Dena izan da berria, estuasunak pasatu ditugu, amorrazioak eta ezinak ere bai, baina lanak eman du, beste behin, bere fruitua.

Hala ere, lankideekin aurrez aurre egotea eta eguneroko kafe garaia. Horiexek sumatu ditut faltan dena 'tele' den garaiotan.✳

## Aldatu ez direnak

**L**985.ean bisitatu nuen lehenengo aldiz Euskal Herria. Geroztik, ia urtero joaten naiz, eta konturatu gabe, urte mordo pasatu da. Bitartean, Euskal Herrian gauza asko aldatu dira.

Begi-bistako adaketein ohartzea erraza da beti. Adibidez, 1985.ean kaleetan zenbat txakur-kaka ikusi nituen! Egundura, ordea, askoz gutxiago daude, kalean askoz txakur gehiago ibiltzen den arren. Ardo eskatzeko modua ere asko aldatu da; lehen, taberna batean hiru aukera bakarrik egoten ziren; beraz, beltza, gorria edo txuria. "Beltz bat, mesedez" esatea nahikoa izaten zen. Gero hasi ziren berezia eta normala bereizten, eta gaur egun, paretan ardo mota askoren izenak jarrita daude. Herri gehienetan obra asko eginda berrikuntzak eta hobekuntzak izan direla esan beharrik ez; Azpeitiko plaza, adibidez. Txikiteoaren ohitura asko bajatu da. Euskararen egoera ere aldatu da, baita euskara bera ere, eta aldatzen jarraitzen du. Euskaldunen izaera eta jende



|||||||||hiromi yoshida|||

arteko harremanak ere aldatuko ziren –artikulu honetan "euskaldun" da "euskaraz bizi den euskal herritarra"–. Aldatu diren puntuek, seguraski, gaur egungo gizarte digitalizatuarekin eta globalizazioarekin lotura izan dezakete, baina momentuz, ez naiz gai hori ondo azaltzeko.

Euskaldunen izaerari dagokionez, aldiz, aldatu ez diren ezaugarriak ere badaude nire ustez (orokorrean ari naiz). Adibidez, gaur egun ere, orokorrean, *xurre* izateari gorrotoa diozue; bat hartzen baduzue, bi ematen dituzue; euskaraz zoezer dakiten kanpotarrekin oso jator eta eskuzabal portatzen zarete; lana txukun eta ondo egitea maite duzue; nork bere bideari jarraitzeari garrantzia ematen diozue; laguntza eske datorrenari laguntzeko prest zaudete beti; hamar solaskideren artean euskaraz ez dakien bat bakar dagoenean, erdaraz egiten duzue haren onerako, euskara zokoraturik... Bihotz-oneko izaten jarraitzen duzuela esango nuke.✳

gaLdetzen hasita, noiz arte luzatuko dute alarma egoera, eta beraz, konfinamendua? ✍ Uztarría

## Kultur Tour

**G**ogoa eta umorea dira lagunarteko plan onak osatzeko errezetaren osagai nagusiak. Ondorengo protagonistei ere ez zaie falta ez gatzik, ez piperrik. Hemen lauzpabost sudur gorriren abenturak!

*Errementari* filmaren estreinaldia zela eta hasi zen dena. Txikitan Patxi errementariaren antzerkia egin zuten Feli irakasle kuttunarekin eskolan, horren harira zehaztu zuten egun-pasarako plana. Goizean Agorregi bisitatu, eta bazkal aurretik, ipuin fisikoa eskutan hartu eta irakurri egin zuten; jarraian, tripa festa. Xabi zen sukaldaria. Plater bakoitza ipuineko pasarte ezberdinekin lotu zuen. Otorduaren aurkezpena bikaina, eta zaporea ezin hobea! Arratsaldean, *Errementari* filma zinema aretoan ikusi eta zine foruma eginez amaitu zuten lagunarteko eguna. Eginaz gozatuta, euskal film berri bat kaleratzen deno plan berezia egitea erabaki zuten.

Handik hilabete batzuetara, *Oreina* filmaren berri iritsi zen lagunartera. Albistea heltzearekin batera,



|||||||||irati aranguren|||

idea jasa burura! Zer egingo, eta goizean, Orion kayakak hartu eta Orián gora abiatu ziren, filmean ikusiko zituzten bazterrak bertatik bertara ezagutzeko asmoz. Jarraian, indarrak berreskuratzeko, tripa festa. Oraingoan sukaldari Olatz, eta plateraren oreina. Orein haragi gisatua bazkaltzea zuten asmo, baina aurkitzeko arazoak tarteko, orein txorizoarekin konformatu ziren. *Oreina* filma ikusi eta zine foruma eginez itxi zuten eguna.

*Dantza, Basque Selfie* eta abar tartean izan baziren ere, azken bizipena eta onena *Agur Etxebeste* filmaren ildotik sortu zen. Etxekoei eta gainerako lagunei Nafarroara egunak pasatzera zihoazela esan bazieten ere, ostiral arratsaldean, *Agur Etxebeste* filma Donostian ikusi eta etxean isolatu ziren. Esperientzia itzela zela diote!

Egungo egoera dela eta, abantailarekin ekin diozue konfinamenduari! Aupa zuek, jarraitu irudimenez eta umorez bazterrak ziprizzintzen!✳

HAU HOLAXEENK

Udaberri  
zeriontsua  
eta bizimodu  
berri on!

Covid 19





## Ipurdia salbu

**I** purtzulua itxita hamar egunian..." ezin egon ba, eta gure etxean komuneko papera amaitzen ari da. Oraindik lasai gaude, alternatiba balioki-deak (klinexak, sukaldeko papera...) prest baitaukagu burgestxo fin moduan, baina ezin uka komuneko paperaren krisia hasi dela jada munduaren amaiera aurreikusitako gabe ibili garenon etxeetan.

Izan ere, komuneko paper gehien zutenen hornidura %12 igo da, aldiz, gutxien zutenen erdian erreserbak %11 jaitsi dira. Munduko biztanleria kontuan hartuta, komuneko paper gehien dutenen %1 ak 6.900 milioi pertsonak gordetzen du-

tenaren bikoitza baino gehiago pilatu du. Munduan komuneko paper gehien duten 22 gizonen bilerak Afrikako emakume guztien artean dauzkatenak baino gehiago dira. Herialde batzuetan, biztanleriaren %20a komuneko paperaren %83a izatera iritsi da. Hego Euskal Herriko etxeen %15,4ean, berriz, %60an dagoen batez besteko komuneko papera baino kantitate txikiagoak dituzte. Gero eta nabariagoa da, beraz, komuneko papera dutenen eta ez dutenen arteko aldea.

Paper gehiago duzenon errua dela, alegia, gutxien dugunok geroz eta gutxiago izatea.



|||||||felipe murillo||||

Baina ez asalatu. "Ez da hainbeste horrelako paperik gabe ere ipurdi garbiarekin ibiltzen gine-la". Gure zaharrek *dixit*. Gainera, nire etxe-ko datua bakarrik da fidagarria, hortik aurrerakoak egunotan bolo-bolo dabiltzan mezu apokaliptiko eta kontrastatu gabekoen tankerakoak baitira.

Hala ere, egin ezazue ariketa bat: aldatu bigarren paragrafoan *komuneko papera* adiera *aberasuna* kotzeptuagatik eta ikusiko duzue zentzua hartzen dutela datuok. 2019koak dira. Erreal-errealak. Eta susmoa daukat, hau guztia pasatzen denean ere, ez direla gutxien daukagunon onerako aldatuko.\*

## Erotikan Plax!



|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

**A**utoantolaketa taldeko kidea da June Berasategi Plazola, eta berari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

**Zer da autoantolaketatik gehien gustatzen zaizuna?**

Taldean daukagun konfiantzazko giroa. Askok ikasten dugu elkarrekin.

**Arreta handia eskatzen du ikasle izateak, zertan jarri behar da arreta jolasean?**

Norbera eta jolasean daudenak ondo sentitzen.

**Matematika eskutan, harreman osasuntsu baten hartu-emanen grafikoak zer erakutsiko luke?**

Harremanen arabera aldatokorra izango litzateke. Orokorrean, hartu eta eman modu orekatuan egitea.

**Erotikan, kimikak zenbateko garrantzia du?**


Handia. Ez da gauza bera kimika izatea ala ez izatea.

**Zein da, nerabeekiko, sexualitate kontuetan egon daitekeen mito bat?**

Ez dakigula ezer, ume batzuk izaten jarraitzen dugula.

|||JUNE BERASATEGI|||

Adina. 14 urte.  
Herria. Azpeitia.  
Bizitokia. Azpeitia.  
Lanbidea. Ikaslea.



**Helduek nola ikusten zaituztete nerabeak gaiarekiko?**

Helduen begiradatik, nerabeak gaian "espabilatuak" garela pentsatzen da. Baina hori bai, "espabilatuak" beti kanpokoak dira, etxe-koak "inuzenteak" garela pentsatzeko joera dago.

**Zuen aiton-amonen garaitik zuen garaira, aldaketa handirik sumatzen al duzue sexualitateari dagokionez?**

Gauza asko aldatu direla esango nuke, baina oraindik asko dago aldatzeko.

**Gaitasun afektiboa neurtzeko azterketa bat egingo baltz, zer ikusiko genuke?**

Afektua oso gutxi lantzen da eskolan. Lantzen duguna norbanakotik eta taldean gure artean lantzen delako izaten da askotan.

**Eskolarako proposamenik, sexuen hezkuntza lantzeko?**

Nire ustez, garrantzia gehiago eman eta urte guztian zehar landu beharko genuke. Gaia lantzea oso garrantzitsua da.

**Sexu aniztasuna ikusten al da eskolan?**

Gizarte honek berdina izatera bultzatzen gaitu, eta uste dut hori eskolan ere irudikatzen dela. Aniztasuna ere ikasgeletan gehiago landu behar genukeen gaietako bat da.\*

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920  
Hil honetan ez da aurrez aurreko zerbitzurik emango, baina bai telefono bidezkoa.




# Hustuta, biluzik

Alex Berasategi argazkilariak hainbat irudi hartu ditu egunotako ezohiko egoeran. Drona eta kamera baliatu ditu herriaren ikuspuntuak jasotzeko. 📷 Alex Berasategi

---













# Hegoak ebakita

COVID-19 gaitzak erabat aldatu du herritar guztien bizimodua. Egun batetik bestera, etxea bilakatu da denen mundua. 📝📍 **Ihintza Elustondo eta Mailo Oiarzabal**

**K**oronabirusak hankaz gora jarri du guztia. Gaitz batek erakutsi du ez dagoela gizakiaren kontrolpean mundua, eta herritarren segurtasuna bermatzeko, neurri bat hartu du Espainiako Gobernuak konfinamendua. Lehen inork zer zen ere ez zekien hitz hori eguneroko bilakatu da une batetik bestera. Goizetik gauera, oinarrizko eskubide bat galdu dute herritarrek: ezin dira etxetik atera. Eta ezin horrekin batera datoz, gertukoak ezin ikusia, paseo bat ezin emana, eta askoren kasuan, lanera ezin joana. Hainbeste ezin, hegoak ebakitako txoriak bezala sentitzen da jendea.

Duela hilabete, zeinek esango zuen egoera honetara iritsiko ginenik. Horrela egongo ginenik, etxean. Hainbeste oztopo eta mugarren artean, ordea, gauza bat irabazi dute herritarrek: denbora. Egoerara nola egokitzen ari diren kontatu dute hainbatek.

## NAZARET FERNANDEZ

||| **Jaioturtea.** 1993. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Osasun larrialdietako teknikaria.

“orain, gure Lana baLoratuagoa izaten ari deLa sentitzen dugu”

“Osasun larrialdietako anbulantzietan egiten dut lan, Gipuzkoako Anbulantziak. Hainbat herritan aritzen naiz lanean, baina batez ere, Azpeitian eta Eibarren. Etxetik irten eta



Nazaret Fernandez.

anbulantzien basera iritsi orduko janzen dut uniformeak egunero, eta astirik izanez gero eta deirik ez badugu jasotzen, aurreko txandako lankideek eguneratu egiten gaituzte. Gero, 112tik abisuak jasotzen ditugu, eta behar gaituzten tokietara joaten gara.

Koronabirusa dela eta, ohi baino lan gehiago dugu, eta segurtasun neurri zorrotzagoak ezarri dizkigute. Gure lanegunak hamabi ordukoak izaten ziren lehen, baina orain, beti lankide berarekin egoteko, 24 orduko txandak egiten ditugu. Gainera, anbulantziak produktu bereziekin desinfektatzen ditugu, eta horrez gain, norberaren segurtasuna bermatzeko ekipamendu gehiago ditugu, bai guretzako, baita pazienteentzako ere.

Komunikabideek erakusten dutena kontuan hartuta, bi aukera bakarrik daudela dirudi: koronabirusa harrapatzea edo osasunez ondo egotea. Baina esan beharra dago lehen gertatzen ziren beste hainbat larrialdi gertatu egiten direla oraindik ere: erorketak, erditzeak, istripuak, gelditze kardiatikoak...

Pandemia emozionalki asko eragiten ari zaidala dela esango nuke. Baina ondo barneratuta daukat nire lana osasun arloari lotutakoa dela eta hau bizitzea tokatu zaidala. Hala ere, etxera joan eta senideak ondo daudela ikusteak lasaitu egiten nau.

Koronabirusa duen pertsonaren bat artatzea tokatu zait. Guk pazienteak dauden lekutik ospitalera eramaten ditugu, eta sinto-



marik izanez gero, guztion segurtasunagatik, birusa izango balu bezala jokatu behar dugu. Badakigu ospitalera eraman ondoren batzuek positibo eman dutela, eta beste batzuek gripe arrunt bat zutela.

Egia da, gure lana tarteko, kutsatzeko arrisku handiagoa dugula, baina larrialdi momentuetan odol hotzarekin jokatu behar da; hau da, ezin diot nire buruari kutsatzeko arriskuan nagoela pentsatzen utzi, pazientearen ongizatea nire eskuetan dagoelako. Gero, gerokoak.

Azpeitian lan egin dudan bakoitzean, esker oneko familiak eta pazienteak tokatu zaizkit gehienbat. Baina orain, gure lana baloratua goa izaten ari dela sentitzen dugu. Azken finean, ematen ditugun zerbitzuak jende gehiagok behar ditu momentu honetan, nahiz eta gure lana beharrezkoak izan den beti”.

## ION ULIBARRI

||| **Jaioturtea.** 1978. ||| **Herria.** Elgoibar.

||| **Lanbidea.** Azpeitiko udaltzainburua.

“herritarren %85-90 ondo ari dira betetzen konfinamendua”

“Orokorrean, ondo ari dira betetzen konfinamendua herritarrek; uste dut %85-90 arauak ondo errespetatzen ari direla. Goizetan izaten ditugu arazoak, jendea erosketak egitera irteten den uanean. Pertsona batzuk, behin atera beharrean, sarritan ateratzen dira kaleara: bi, hiru edo lau aldiz ere bai. Kasu batzue-

tan, gainera, pertsona nagusiak dira hori egiten dutenak; hain justu, gaitzak gehien eragiten dienak. Supermerkatuetako langileek ere gauza bera esan digute: goizetan pertsona bera ikusten dutela behin baino gehiagotan erosketak egiten. Arratsaldean, oro har, jendea etxean egoten da, eta eguneko tarte horretan, asko errespetatzen dute konfinamendua.

Konfinamenduko neurriak betetzen direla ziurtatzeko, kontrolak ari gara egiten egunero Azpeitiko hainbat puntutan. Esaterako, gidariak bakarrik doazela ziurtatzen dugu, eta binaka badoaz, baimendutako kasuak direla baieztatu. Arau hausteren bat ikusiz gero, abisua ematen dugu lehen egunean, eta akatsa errepikatzen dela ikusten badugu, isuna jartzen dugu. Baina, egia esan, momentuz ez ditugu isun asko jarri. Jarri ditugu bakarren batzuk, baina kontuan hartuta Azpeitia 15.000 biztanleko herri bat dela, ez dira asko.

Zabalduta zurrumurruak gauez mendian zebiltzan herritar batzuk harrapatu ditugula, baina Azpeitian ez da halakorik gertatu. Gaueko txandetan lanean ibili izan gara, eta baten bat harrapatu dugu korrika, baina abisatu genion hori ezin zuela egin, eta ez dugu berriz ikusi. Ikusi dugu mezua iritsi zaiola pertsona horri.

Jendearen kezka nagusietako zera izaten da: ea adin nagusiko senitarteko baten etxera joan ote daitezkeen janaria eramatera. Le-

geak baimentzen du hori, baina guri lana errazteko, gainean dokumentazioen bat eramatea eskatzen dugu, pertsona hori adin nagusikoa dela eta haren etxera doazela ziurtatzeko.

Oro har, herritarrek nahiko ondo ari dira neurriak betetzen, eta bide beretik jarraitzeko esango nieke, oraintxe datorkigu-eta zailena: luzapena. Uste dut horrek ekarriko dituela arazoak. Egunak aurrera doaz. Lehen egunak nahiko ondo eramaten dira, baina nire kezka da ea zer gertatuko den datozen egunetan. Eta denok dugu kezka bera: egoera hau apirilaren 1 n bukatuko da edo ez?

Egia esan, guretzako ere ez da samurra horrela ibili behar izatea; jendeari oinarriko askatasun bat murrizten ari gara: kalean lasai ibiltzea. Baina denok egin behar dugu azken esfortzua, gogorra oraintxe datorrelako. Animo denoi, eta eutsi, bakoitzak ahal duen neurrian”.

## LURDES AIZPURI

||| **Jaioturtea:** 1965. ||| **Herria.** Urrestilla.

||| **Lanbidea.** Dendaria.

“Ea hau guztia igarotzean ez diren gutaz ahazten!”

“Egoera kontuan hartuta, esango nuke lasaitasunez ari garela eramaten. Gure bezeroak ere nahiko lasai nabaritzen ditugu, orokorrean.

Egoera hau dela eta, denda goizez bakarrik irekitzea erabaki genuen. Iruditzen zait bezeroek ulertu dutela erabakia eta egunero-kotasunean kontuan izaten dutela. Segurtasun neurriak ere hartu ditugu; bezeroei eskularruak jarri dizkiegu eskura, eta geu ere babesten gara, geure maskarak eta eskularruak erabiliz. Geure eta bezeroen arteko eta bezeroen beraien arteko segurtasun tarteak mantentzeko neurriak ere hartu ditugu; aldi berean, gehienez, bi bezero egon daitezke denda barruan, eta salmahaian jartzeko babeserako pantaila ere eskatu dugu.

Ohiko bezeroei beste batzuk gehitu zaizkie egunotan. Ea hau guztia igarotzean ez diren gutaz ahazten!

Salmentei dagokienez, esango nuke lehen baino ogi gehiago saltzen dela, eta orokorrean, denetik zerbait gehiago. Denak etxean gaudenez, janaria ere gehiago behar da. Euskaldunon ohiturak mantentzen ditugula nabari da, jan-edana ez dadila falta! Hornidura arazo aipagarrikerik ere ez dugu izan, ez zaigu komune-ko paperik eta horrelakorik falta.



Ion Ulibarri.



Lurdes Aizpuru.

Gurea estankoa ere bada, eta tabakoa ere ohi baino zertxobait gehiago saltzen ari gara. Baina badakit, era berean, bezero batzuk tabakoa uzten saiatzen ari direla itxialdi honetan.

Nabaria da bezeroen zein geure hizketal-dietako gaiak aldatu direla asteotan. Koronabirusa eta konfinamendua bihurtu dira bezeroen eguneroko gai, eta kezka adierazten dute bizi dugun egoerarekiko.

## KARMELE ZABAETA

||| **Jaioturtea.** 1975. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Dendaria eta Bertan merkatarien elkarteko lehendakaria.

“denok ditugu antzeko gaLderak eta inork ez dakizki erantzunak”

“Dekretua martxoaren 14an irten arren, bezperan hartu nuen denda ixteko erabakia, ostiralean. Izan ere, banekien ixteko agindua etorriko zela, zapatuan ez bazen astelehenean, ziur nengoen. Larunbatean denda ireki nuen, bezero batzuei zerbitzua eman beharra neukalako, jasotzeko zeuden enkarguak eta abar; baina goizez bakarrik ireki nuen.

Gauza asko pasatu zitzaizkidan burutik denda itxi behar izan nuenean, baina ez zegoen beste aurkerarik edo erantzun posibleirik. Orain arte ezezaguna zitzaigun unea ari gara bizitzen. Saiatzen naiz egunean egunekoa bizitzen, gauzak norabide guztietan ari dira aldatzen, eta egunero dago aldaketaren bat.

Orain arte hartu diren neurriak zuzenak izan direla esango nuke. Ekonomia krisi handi baten aurrean gaude, argi dago geldialdi honen eragina oso garrantzitsua izan-

go dela, baina osasuna da lehendabizikoa, osasunik ez badaukagu soberan dago gainontzeko guztia. Niretzat, denda horrenbeste denboran itxita edukitzeak galera ekonomiko izugarria dakar. Gure fakturazioa zero da momentu honetan, eta zoritxarrez, autonomo guztiak ordaintzen jarraitu behar dugu; kuota ez digute barkatu, hori ordaintzen segitu behar, baina diru-sarrerarik ez dago. Kuotarekin batera zenbait gastu finko ere ordaindu behar ditugu, argindarra eta telefonia, besteak beste. Gobernuak ez du zerbitzu horien hornitzaileei zuzendutako neurririk hartu, eta ez zait zuzena iruditzen; uste dut, egoera zein den kontuan hartuta, horni-

tzaile horiei ere agindu beharko lieketela momentuz kobraketak eteteko.

Laguntzak ere iragarri dituzte erakundeek, eta alde horretatik, Azpeitiko Udalarri eskerak eman nahi nizkioke lehendabizi, lehenengo unetik izan gaituztelako gogoan eta gauzak ondo egiten direnean esan beharra dagoelako. Gainontzeko erakundeek iragarri dituzten neurriak dagokienez, esaten dute dirulaguntza batzuk izango direla, nahi dut horretan sinistu; baina aipatu berri dudana bezala, ez zait oso zuzena iruditzen gobernuak beste kontu batzuetan ez eragitea. Azken finean, autonomoak gara, oso txiki ikusten gaituzte, eta beti gertatzen den bezala, enpresa handientzako dira laguntza eta babes handienak, eta kezkarria iruditzen zait hori. Gogoratu nahi dut autonomoak pila bat garela eskualdean, Gipuzkoan zein Euskal Herri osoan; denok bat eginez gero, enpresa indartsu baten parekoak gara.

Merkatari txikiok lehendik ere zailtasunak genituen, eta egoera honen ondorengo panorama ez da hobea izango. Galera izugarriak utziko dizkigu honek. Pentsatu nahi dut denok itzuliko garela gure saltokietara, baina lanke-ta bat egin beharra daukagu, merkatari bakoitza bere hornitzaileekin akordioetara ailegatzeko, egoera honi denok batera buelta ematea eta pertsianak altxatzea nahi badugu. Panorama ez da lehen bezalakoa izango, garbi daukat dendari guztiok egoera berrira egokitu beharko garela, eta erosleak ere bai. Joango gara forma ematen, egunak aurrera dihoazen heinean egoerari neurria hartzen. Uste dut aterako garela honetatik ere.



Karmele Zabaeta.

Bertan merkatarien elkartearentzat lan karga izugarriko egunak ari dira izaten, batez ere, teknikariarentzat. Galdera pila bat ekarri dituen ezusteko egoera baten aurrean gaude, eta erantzunik ez duten galderak dira, momentuz. Iruditzen zait elkartea ahal duen ondoen ari dela erantzuten, bere eskuetan dagoen dena ari da egiten. Gobernutik etorri dira jarraibide eta betebeharrak, eta elkarre gisa ez dugu inongo eskumenik horien aurrean. Une oro eta jaso ahala eman diegu informazioa elkarteko kide guztiei. Hala ere, zer baitetan huts egin badugu, elkartearen izenean barkamena eskatu nahi nuke hemendik. Denok ditugu antzeko galderak eta kezak, eta erraza ez bada ere, egoera lasaitasun pixka batekin hartzen saiatu behar dugu, inork ez dazkigulako erantzunik. Etengabe ari gara dendarien zalantzak argitzen, geure neurrian haiei babesa ematen, dugun informazio guztia bideratzen eta lagundu ahal dugun guztietan, laguntzen. Egun batetik bestera aldatzen ari dira gauzak, egunero dugu albiste berriren bat. Jendea oso urduri dago, kezkatuta.

Herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu, bertan eta saltoki txikietan kontsumitzen dutenei. Bertan geunden, bertan egongo gara, eta inoiz baino garrantzi handiagoa eman behar diogu bertako merkataritzari. Ilusioa ez galtzeko ere eskatuko nieke, bai herritarrei, bai merkatariei, denon artean lortuko dugulako honi buelta ematea eta aurrera egitea”.

## XELEX ITURZAETA

||| **Jaioturtea.** 1944. ||| **Herria.** Urrestilla.

||| **Lanbidea.** Jubilatua. Bakarrik bizi da.

“Egoera kontuan hartuta ondo nago, baina hau gogorra da, e?”

“Agindu zutenetik nago konfinamenduan, etxean sartuta. Neuk erabaki nuen horrela egitea, hau gauza serio samarra izango zela pentsatuta. Aita zenak gauza asko kontatzen zizkidan azken aldera, bere gazte garaian pairatu zuten gripeareneko epidemia hartaz; horrelako zerbaitekin zitekeela pentsatu nuen, eta etxetik ez irteteko agindu zutenetik, etxean geratzea erabaki nuen. Orain gaixotzea litzateke, niretzat... Astegunetan ogia ekartzen didate; hori hartuz irteten naiz etxe azpira, eta lauzpabost egunean behin beheko denda txikira, erosketak egitera. Ondoko bizilagunek ere laguntzen didate zerbaitekin behar izanez gero. Haiek nirekin ez dakit, baina ni oso ondo eramaten naiz haiekin. Gazteak dira, eta erakutsi didate haiekin kontu dezakedala.



Xellex Iturzaeta.

‘Xelex, zerbaitekin behar baduzu, esan, ekarriko dizugu eta’. Jende gaztea, ‘naturalak’ eta oso jatorrak dira.

Honen aurretik pattalaldia izan nuen, baina lo oso ondo egiten dut. Goizeko zortzietako irratiko albistegia entzun eta zortzi eta erdiak inguruan jaikitzen naiz. Bizikletan ibiltzen naiz, etxeko aspergarri horretan. Kalean ibiltzen ohituta... Egia da kaminoan ez ibiltzeko ere esaten zidatela, e, arrisku handia dago eta trafikoarekin. Orain libre-libre egongo dira bideak ibiltzeko, baina ertzainek geratzeko arriskua! Anai-arrebek asko laguntzen didate, sarri deitzen didate, batek ez bada besteak; 11 ‘bakarrik’ gara eta... Seme-alabek eta bilobek ere bai, noski. Eta oso eskertuta nago boluntario sareko Xanet Esnaolarekin ere. Oso ideia ona iruditzen zait adinekoei zer behar dugun galdetzeko deitzea. Xanetek deitzen dit niri, oso mutil jatorra eta argia; berriketaldi ederrak izaten ditugu. Batzuekin eta besteekin hitz egiteak asko laguntzen dit bakardade hau arintzen. Gauean, berriz, goiz erretiratzen naiz. Izan ere, egun hauetan ez dago telebistara begira egoterik, lehenaz gain, aztoratu egiten zaitu.

Etxetik irteten ezin izatea da egoera honen gauzarik amorragarriena, horrenbeste ordu etxean egon beharra. Aurreneko egunak ez ziren batere errazak izan; egun bakarra nahikoa ez, eta hainbeste egunetan etxetik irteten gabe egon beharko nintzela pentsatzeak... Ni, gainera, oso kalezalea naiz, etxetik kanpo asko gelditu gabe ibiltzen den horietakoa. Urrestillara joan, baserrira, eta han ardiatar, ahuntzetara... Anaiari eta koinatari laguntze-

az gain, entretenitu egiten naiz neu horrela. Etxean ezin egon, beti batera eta bestera, batengana eta bestearengana. Odol emaitetan ere ibiltzen naiz, gauza handirik ez dugu egingo igoal, baina batekin eta bestearekin egon, eta ahal denean lagundu.

Etxekoen kezek kezkatzen naute. Edozein garaitan joaten nintzen haiek bisitatzen, nire bizi erdia baino gehiago dira, eta bilobak deitu eta ‘attite, noiz joan behar dugu kromak erostera? Zer moduz zaude bakarrik?’ galdetzea... Auzokoen egoerak ere bai, etxetik irteten gabe... Aldamenean badut neska kozkor bat, 3 urtekoa, Amane; balkoira irteten eta elkarrekin jarduten gara, berriketan. Asper-asper eginda egoten da etxean, ikastolara joaten hasia zen, orain joan ezin, eta ikastolara joateko desiratzen dago. Harekin ere entretenitzen naiz. Kezak-eta ahal den neurrian uxatzen saiatzen naiz beti ere, tentsioan asko eragiten didate eta. Egoera kontuan hartuta nahiko ondo nago, baina hau gogorra da, e?

Hala ere, honek guztiak gauza onak ere ekarri dituela eta ekarriko dituela iruditzen zait. Balkoietako txalo eta festa horiek, horko trikitia, horko musika bozgorailuetatik, gazteek jartzen duten giroa eta martxa... Etxetik gertu baditugu horrelakoak, eta Betharram aldeko dorreetan bizi diren gazte batzuek egiten duten musika eta kantu festa ere entzuten da guretik. Izugarri gustatzen zaizkit horiek, denak barrez eta txaloka jartzen dituzte. Aurreko batean goragoko solairuko batek sagardoa balkoitik bota eta azpikoak edalontziak baldeetan jarrira jasotzen ere ibili ginen!



Konfinamendua bera dezenteko irakaspena eta esperientzia izateaz gain, egunotako bizi-pen horiek gizartearentzat onak izango direla uste dut, honenbestean pasatzen bada behintzat. Zenbat jende etxeetako balkoieta-tik elkar agurtzen... noiz jardun izan gara ba horrela? Eta gauza bat azpimarratzea nahi dut: gazteekin egundoko fedea daukat, xele-break nabarmen ditugu beti, baina onak asko daude eta horiek ez dira inon azaltzen. Egun hauetan ari dira erakusten balio dutena.

Familiarekin elkartzea izango da hau pasatzen denean egingo dudana lehen gauza, bilobekin, haiekin gozatzen dut-eta gehiena”.

## MAITE ARAUZO

||| **Jaioturtea.** 1978. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Telelana egiten ari da.

“oreka biLatzea zaila da horrelako egoera batean”

“Hiru seme ditugu Laramendi-Arauzo familia: 6, 9 eta 11 urtekoak. Gure etxean koronabirusak izan duen eragina gainontzeko etxeetan izan duen bera izango dela pentsatzen dut. Hasierako egunak izan ziren nahasiak eta estresagarriak. Goizetik gauera egoera aldatu zen, eta bat-batean, ikastetxe-etako ordu presentzialak bertan behera gelditu ziren. Dударik gabe, gure etxean eragin handia izan du horrek, nire senarrak eta nik

ondorengo astean lanera joaten jarraitu genuelako eta umeak etxean zeudelako. Gainera, guztiok urduri geunden, gaixotasunaren gertutasunak sortzen zigun beldurratik; semeetako batek etengabe galdetzen zidan aitona-amonak eta izeba gaixotu eta hilko ote ziren. Egun gogorrik izan ziren hasierakoak.

Konfinamenduan, errutinak mantentzen saiatzen gara etxean. Asteazkenean, goizez, telelana egiten dut nik, eta umeek ikastolako lanak egiten dituzte. Erritmoa beste bat izanagatik, astegunak eta asteburua bereizten saiatzen gara, eta hori bada zerbait. Umeek asteburuaren zain jarraitzen dute, gozokiren bat jateko edo tabletean jolastu ahal izateko. Erosketaren bat badugu egiteko, senarra ateratzen da kalera, guretzako nahiz gurasoentzako elikagaiak erostera, haiek ere etxean baitaude txintxo-txintxo. 20:00etan, berriz, egunero ateratzen gara balkoira txaloak jotzera osasungintzako langileei; momentu hori bizilagunen elkartasuna sentitzeko unea ere badela uste dut.

Hasieran, senarra eta ni lanera joaten ginen, bera goizez eta ni arratsaldean joaten ginen, biotako bat umeekin egon ahal izateko. Kaos bat izan zen hura. Orain, nire senarra lanaldia etenda dago, enplegua aldi baterako erregulatzeko txostena medio, eta beraz, ni lanean ari naizen bitartean, bera egoten da umeekin. Horrek asko laguntzen du.

Arraroa egiten zait lana etxean egitea eta

familia etxean egotea. Baina gela batean izaten dut ordenagailua, eta umeek ahalik eta gutxien molestatzen naute. Zaharrena neure ondoan egoten da ikastolako lanak egiten, beste ordenagailu batekin.

Berez ez gara etxean sartuta ordu asko egotekoak, eta umeek hori antzematen dute. Aitona-amonekin eta izebarekin asko egoten ziren lehen semeak, eta haien falta asko sumatzen dute orain, nahiz eta bideo-deiak egiten ditugun ia egunero. Lagunen falta ere sumatzen dute, noski. Baina, bestela, ondo ari dira moldatzen; aspaldian ezkutuan zeuden jolasak berreskuratu dituzte, eta familian ere ohi baino gehiago gabiltza kartetan-eta jolasetan.

Senarrak eta biok esan izan dugu: ‘Eskerrik ez zen hau duela bost urte gertatu!’. Izan ere, lau urtean hiru seme izan genituen, eta hasiera horretan harrapatu izan bagintu egoerak... Nahikoa lan izango dute ume txikiak dituzten familiek; asko akordatzen naiz haiekin.

Oreka bilatzea zaila da horrelako egoera konplexu batean. Hasierako egunetan, beldurra eta tristura handia sentitzen nituen. Lanera joateak ere beldurra sentiarazten zidan, eta hori umei ahalik eta gutxien transmititzea nahi banuen ere, guztiok genituen emozioak gainezka, eta zaila zen. Orain, telebista gutxiago jartzen dugu, eta berriak egunehin behin bakarrik ikusten ditugu. Senarra eta biok etxean gaude, eta gainontzeko eginkizunei erreparatuta, eguna nahiko okupatuta pasatzen dugu. Horrela lasaiago gaude, kezkatuta jarraitzen badugu ere”.

## HAIZE IZAGIRRE

||| **Jaioturtea.** 2013. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Ikaslea.

“parkera joatea eta lagunekin jolastea sumatzen dut faltan”

“Koronabirusa dela eta, ezin naiz etxetik atera, beste herritar guztiak bezala, eta pixka bat aspertuta sentitzen naiz. Egunotan ez naiz ikastolara joaten, eta nahiago dut hara joatea, lagunekin egoteko. Etxeko lanak bidali dizkidate, eta ondo moldatzen naiz horiek egiteko. Dena den, gurasoek laguntzen didate pixka bat:  $h$  hizkiak non jarri behar ditudan eta  $r$  bat edo bi erabili behar diren esaten didate.

Ikastolako lanez aparte, denbora librean, gauza asko egiten ditut. Egun batean, plastilinarekin esperimentu bat egin nuen, baina ez zitzaidan ondo atera. Horrez gain, koadroa margotu, eskulanak nahiz yoga egin, telebista ikusi, xakean jolastu, dantzatu, musika en-



Maite Arauzo eta haren familia.



Haize Izagirre.

tzun, anaiarekin jolastu, kartetan ibili... egin dut. Gehien gustatzen zaidana kantatzea, marraztea eta dantzatzea da.

Etxetik atera gabe ondo ari naiz moldatzen, baina batzuetan, aspertu egiten naiz. Pixka bat gogorra egiten zait tarteka. Parkera joatea eta lagunekin jolastea sumatzen dut faltan gehien.

Egia esan, koronabirusa beste konturik ez dago egunotan bazter guztietan, eta pixka bat kezkatuta nago, agian, niri ere kalte egin

go didalako. Gaixotasuna ahalik eta gutxien zabaltzeko, etxean babestuta egoten naiz eta eskuak oso ongi garbitzen ditut”.

## NAROA MUÑOZ

||| **Jaioturtea.** 2002. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Batxilergoko bigarren mailako ikaslea.

“Ez da gauza bera eskolara joatea edo etxean jasotzea saioak”

“Koronabirusa dela eta, ez gara eskolara joaten; beraz, saio batzuk Classroom edo Gmail plataformen bidez jasotzen ditugu, eta beste ikasgai batzuk lantzeko, berriz, gelakide guztiok bideo-deiak egiten ditugu irakaslearekin. Ez dugu ordutegi finkorik; batzuetan bideo-deia daukagun ordurako konektatuta egon behar dugu, baina bestela, askatasun handiagoa ematen digute ordutegi aldetik. Hori bai, goizean zehar behintzat lan egitea gomendatu ziguten konfinamendua indarrean jarri zenean.

Irakasleek eta ikasleok geure partetik dena jartzen dugun arren, ez da gauza bera eskolara joatea edo etxean jasotzea saioak. Ikasgelan bertan jasotako eskolak produktiboagoak direla iruditzen zait, eta hori zailtasun handiagoa duten ikasgaietan nabaritzen dugu, batez ere.

Azkenean, uztailaren 6tik 8ra bitartean egingo da selektibitatea, eta egiteko asmoa dut. Data horiek iritsi arte, badugu prestatzeko denbora, eta beraz, ondo prestatuta iritsiko garela espero dut. Hala ere, eskolak distantziara jasota, kontzeptu guztiak ez direla hain garbi gelditzen iruditzen zait; horretan sumatzen dut hutsunerik handiena egoera honetan.



Naroa Muñoz.

la erabakita dut zer ikasi nahi dudana; ez nago guztiz ziur, baina erabakia orain hartu beharko banu, terapia okupazionala ikasiko nuke. Odontologiako graduak ere tentatzen nau, baina gradu bat aukeratzekotan, lehenengoa esango nuke. Azkeneko erabakia hori izanez gero, ez nuke nota alturik beharko selektibitatean; beraz, ez dut presio handirik sentitzen. Bada, ordea, nota altua behar duelako kezkatua dagoen jendea nire inguruan.

Ikasketen aldetik, ez nau hainbeste kezkatzen koronabirusak eragingo didanak; beste alorrei dagokienez kezka gehiago sortzen zaizkit gaitzaren inguruan. Hala ere, guztiok ongi jokatu zergo, laster dena konponduko dela espero dut”.

**IKA** Instalakuntza Elektrikoak  
argi lanak s.l.  
Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71  
ikazirg.lanak@gmail.com www.ikansternak.com  
20730 AZPEITIA

Zure autoak beti ez dira adierazten  
**FX** AIZPURU AUTOAK  
PREZIOA GAITZARRA  
Tel: 943 81 23 89 aizpuru@aizpuru.net  
fax: 943 81 22 88 www.aizpuru.net Arretxa 17, 20730 AZPEITIA

**Xabier** margoak  
Pinturak eta Parket Laminatuak  
Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermargoak.com

**EGUZKI**  
belandonda  
diseinua  
kosmetika naturala  
Kale Nagusia 67 943 50 04 47 AZKOTIA  
Urbilua 9 943 15 00 23 AZPEITIA

**LAU** NEUMATIKOAK  
PREMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA  
943 053056 Leticia kalea 20, 20730 Azpeitia

# NAHIA SOLOLUZE

Zaldibarko zabortegiko ezbeharrean hildako baten alaba

“Telefonoari adi bizi naizela esan dezaket”

Zaldibarko zabortegiko lur-jausiak azpian harrapatu zuen haren aita Alberto Sololuze. Gorpuak aurkituko dituzten bermerik ez, baina itxaropena badu. 📞📍 Julene Frantzesena

**E**gutegitik ezabatzeke moduko urtea”. Aurten goa hala izaten ari dela azaldu du Nahia Sololuzek (Markina-Xemein, Bizkaia, 1987). Joan zen otsailaren 6an Zaldibarko (Bizkaia) Verter Recycling enpresan lanean ari zela, milaka tona hondakinen azpian harrapatuta gelditu zen haren aita Alberto Sololuze, baita Joaquin Beltran ere. Barruan duen nahigabea ezkatutu gabe, aitaren gorpua aurkitzearen esperantzari eusten dio.

**Bi hilabete pasatu dira zure aita Zaldibarko lur jausiaren azpian harrapatuta gelditu zenetik. Ezer baino lehen, zer moduz zaudete?**

Etsita pixka bat. Bilatze lanetan ari dira, eta esperantza ez da se-

kula galtzen, baina... Hau oso gogorra da. Oso luze doa. Guk pentsatzen genuen berehala aurkituko zituztela; egin beharrekoa egin eta listo izango zela. Baina oraindik luzerako izango dela uste dut. Ume txiki bat daukagu etxean, eta eskerrak, penak pixka bat estaltzen baitizkigu.

**Aktualitateari dagokionez, koronabirusaren krisiak bigarren planoan utzi du Zaldibarko gertakaria. Zuek ere konfinamenduan izango zarete. Nola ari zarete bizitzen egoera?**

Konfinatuta gaudenez, buruak lehen baino denbora gehiago dauka bueltaka hasteko, pentsatzeko. Lehen, kalera atera eta entretenezko aukera genuen,

## |||DATUAK|||||

|||**Jaio.**1987ko abenduaren 16a.

|||**Herria.** Markina-Xemein.

|||**Bizi tokia.** Azpeitia.

|||**Lanbidea.** Irakaslea.

baina orain, ez daukagu horretarako aukerarik. Egoera dela eta, komunikabideetan gutxiago hitz egiten dute gertatutakoaz; eguna joan eta eguna etorri, beste konturik ez genuen entzuten lehen. Egia esan, hedabideetan gutxiago hitz egitea baliagarri izan dakiguke zauriak sendatzen hasteko. Minak denborarekin sendatuz joango direla uste dut, baina gorpuak aurkitu arte ez dugu atsedenik hartuko. Lanak ez geratzea da niri axola zaidana. Izan ere, koronabirusaren kontuarekin, lanak geldituko zituzten eta bilaketa etengo zuten beldurra banuen.

**Ba al duzue egiten ari diren lanen berririk?**

Bai. Eusko Jaurlaritzaren larrialdietako ordezkari batekin etengabeko harremana daukagu. Egunero deitzen digu informazioa emateko, eta bilera deialdiak ere hark egiten dizkigu. Bestalde, zabortegira ere joaten gara, eta egiten ari diren lanen gaineko azalpenak ematen dizkigute langileek. Lehendakariari eskatu nion hara joateko baimena, eta, baiezkota jasota, astean behin behintzat joaten naiz. Egia esan, oso ondo portatu dira gurekin, nahiz eta zertan ari diren ez jakitea hobe dela ere pentsatzen dudana batzuetan.

**Itxaropentsu al zaudete?**

Bi gorpuak egon daitezkeen





gune posible batzuk identifikatuta dituzte, eta horietara iritsi nahian ari dira. Dena den, lur asko dago gainean, eta ez dute lortu leku horietara iristerik. Aitak baskulan egiten zuen lan, eta han inguruan dagoela uste dute. Duela bi aste, zabortegira joan ginenean, lur asko mugitu eta lanekin dezente aurreratu zutela ikusi ahal izan genuen. Pentsa, nik nabaritzeko... Baskulan baldin badago, ari dira gerturatzen. Ez dakiguna da zenbat denbora behariko duten leku horretara iristeko; izan ere, eguraldiak eta lurraren egoerak eragina dute lanetan. Gainera, nik ez dut nahi lanean ari den inor arriskuan jartzetik. Laster aurkituko dituztela espero dut, baina, oraingoz, ez dago berririk.

24 ordu zain gaude; telefonoari adi bizi naizela esan dezaket.

#### **Gorpuak aurkitzen badituzte, zer egingo duzue?**

Behar bezala agurtuko dugu aita. Baina hori, aurkitzen badituzte egin ahal izango dugu. Ez aurkitzeak ematen dit beldurra. Hasieran, larrialdietako ordezkarietara esaten nien niri aitaren hezur zatirik ez ekartzeko, baina, denbora pasatu denean, hezur zati horiek behintzat jaso nahi nituzke. Ezin digute bermatu aurkituko dituztela, eta ulertzen dut hori, baina esperantza ez galtzeko esaten digute, eta horri eusten diogu. Hala eta guztiz, zabortegira joan eta aita hainbeste hondakinen artean dagoela pentsatze hutsarekin hautsi egiten naiz. Datorren urta-

rrilean zen jubilatzekoa, eta begirara!

#### **Ondoren, ekimen legalen bat abiatzeko asmorik ba al duzue?**

Bai, abokatua kontratatu dugu. Orain aita aurkitzea nahi dugu, eta gero ikusiko dugu zer etortzen den. Abokatuaren lana da gorpua aurkitu ostekoa.

#### **Bi izan ziren lur azpian harapatuta gelditu ziren langileak: Joaquín Beltran eta zure aita. Beltranen familia-rekin harremanik ba al duzue?**

Bai, ondo konpontzen gara. Ez-beharrak pasatu aurretik ez genuen ezagutzen elkar, baina orain, bai haiek eta bai guk, min bera daukagu barruan. Egoera

berean gaude, eta elkar babesten gara. Haiek dira gu ondoen ulertuko gaituztenak, eta alderantziz.

#### **Bi hilabete atzera eginda... Otsailaren 6ko arratsaldea. Nola oroitzen duzu Zaldibar-ko zabortegian gertatu zen lur jausia?**

Akademia bat daukat Azpeitian, eta han nengoen lanean amak deitu zidanean. 17:30 inguruan zen, saioa bukatzen ari nintzen, eta zera esan nuen bozgoran: "Ama, badakizu lanean ari naizela, eta zu deika...". Hartu egin nuen deia, eta, ama hitz egiteko gai ere ez zenez, aldamenen zuen emakume batekin jarri ninduen. Hark azaldu zidan guztia, eta oso gaizki erreakzionatu nuen: hurrengo es-

kolara sartzeko zain zeuden ikasle denak etxera bidali nituen. Senarrari deitu nion Eibarrera joan behar genuela esateko –amak Eibarren egiten du lan–, baina gidatzeko gai ere ez nintzen, eta akademiako lankideak eraman ninduen harengana autoan. Bidaia beldurgarria izan zen; bi ordu baino gehiago pasatu genituen Azpeititik Eibarrera joaten. Amarekin bere lantokiaren aurrean elkartu ginen. Esperantzarekin joan nintzen Eibarrera, baina 22:00 aldean larrialdietako kide batek esan zidan aita-eta bizirik ez zirela egongo eta itxaropenik ez izateko.

### **Noiz jakin zenuten aita lur azpian harrapatuta gelditu zela?**

Eibarrera abiatzerako banekien. 15:50ean izan zen ezbeharra, eta nik 17:30ean jaso nuen amaren abisua. Amari Eibarren esan zioten lur jausia Verter zabortegean izan zela. Aitari deika aritu zen, baina hark ez zion telefonoa hartzen. Enpresara ere deitu zuen, baina ez zioten erantzun. Denbora pasatuta, enpresako kide bat joan zen amaren bulegora abisua ematera.

### **Nolakoak izan ziren hurrengo orduak eta egunak?**

Alaba bakarra naiz, eta ama gure etxera, Azpeitira, etorri zen egun hartan bertan. Hurrengo eguna oso-oso gaizki eman nuen. Ama, berriz, duela gutxi hasi da gertatzen ari denarekin jabetzen. Halako egoeretan buruak egiten omen du gauzekin ez oroitzeako defentsa mekanismo bat.

### **Istripuaren osteko lehen egunak nahasiak izan ziren, bai kudeaketa aldetik, bai informazio aldetik. Zer balorazio egiten duzu?**

Hala izan zenik ezin daiteke uka. Kasua mediatikoa izanik, abisatu ziguten gezur asko zabalduko zirela, eta halaxe izan zen. Dena den, neuk nahikoa kaos banuen neure buruarekin, eta gertatu zen guztiarekin ez nintzen gehiegi jabetu. Egia esan, ez zitzaidan



“Buruak Lehen baino denbora gehiago dauka duela hasteko”

“Politikariek bermatu digute lanean jarraituko dutela”

“Lehen eta orain, aita zabortege irrik ateratzea da nire helburua”

“Eten gabeko harremana dugu Larrialdietako ordezkari batekin”

gehiegi axola. Aita aurkitzea besterik ez nuen nahi.

### **Jaurlaritzak hainbat kritika jaso du lehen egunetan egingako kudeaketaz; zuek ere kritiko agertu zineten. Jarrera aldaketarik izan al da hasiera hartatik hona?**

Behin baino gehiagotan egon gara Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin. Ostegun batean gertatu zen ezbeharra, eta bi sailburuekin elkartu ginen hurrengo astelehenean. Asteazkenean, berriz, lehendakariarekin bildu ginen, eta, hurrengo, bost bat aldiz egon gara. Halere, bai lehen eta bai orain, aita zabortege irrik ateratzea da nire helburua. Politikariek bermatu digute lanean jarraituko dutela, eta hori ikusita nahikoa dut. Gainera, konfinamendu egoeran zabortege irrik joateko baimena eman dit Jaurlaritzak, eta, zentzu horretan, laguntza eman digutela sentitzen dut. Gure gainean daude.

### **Herritar ugari batu ziren gertatutakoaren kontrako protestetara. Babesa sentitu al duzue?**

Bai, eta asko eskertzen dugu. Ama eta biok Markina-Xemeinera joateko beldurrez geunden, jendeak esango zuenarekin kezkatuta, baina deitu zuten elkarretaratzeko batera joan ginen, eta sekulako babesa jaso genuen. Ondo etorri zitzaigun. Egun hartakoa izan zen amak eta biok lo ondoen egin dugun gaua. Lasaitu egin ginen. Gu familia txikia gara: aitak arreba bat du eta ni alaba bakarra naiz. Amona ere bizi da, baina ez diogu ezer esan; izan ere, 92 urte ditu, eta... Familiaren eta lagunaren babesa ikaragarria izan da, baita herritarrena ere. Bestalde, Azpeitiko eta Markina-Xemeingo alkatuek ere jaso ditugu. Oso eskertuta gaude babesa eman diguten pertsona guzti-guztiekin.\*



# #etxetikmundura



**ESKERRIK ASKO** parte-hartzaile guztiei.

Bidali zure bideoa [zuzendaritza@ukt.eus](mailto:zuzendaritza@ukt.eus) e-posta helbidera.  
**#EtxetikMundura** egitasmoko bideo guztiak [uztarria.eus](http://uztarria.eus)-en ikus daitezke.



||| **HITZ GEZIDUNAK** |||||



	Nikaragua-ko herriar		Pl., ortogra-fia ikurra		Osagai ba-karrekoak		Gisu		Bat eta bat
	Gizasemea		Pl., musika tresna		Neuk		Lehen biak		
							Armiarma sarea		
	Aditua kimikan								
	* Izena								
Bidaiatzeko poltsak		Katuaren ume							Txinako iraultzailea
Irudi gra-bagailuak		Arabar milizianoa							
					Sodioa			1000	
					Eguraldia			Sasoi	
Une, momentu					Labore mota				
* Deitura					Musika estilo				
Harrapa ezak!		Nafarroako udalerria					Gudaren erdian		Ez da gaztelaniaz
Multzoa		51					Kontso. errepikatua		
					Poloniako hiria				
					Bokal biribila				
Egiptoko hiriburua						11. hilabete			

**Egilea: Luma**

\* Pilotari ohi eta atleta azpeitiarra

||| **SUDOKUA** |||||

								5
	6			3	2		8	
2		5		9		7		
				8		9		
3			2	9				7
	8		1					
		8		5		1		6
	9		6	2			7	
5								

*Il Partigiano*

**DENDA BERRIA**

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK|||||

**HITZ GURUTZATUAK**

**Ezker-eskuin**

1. Pluralean, landare ezpainduna, zurtoin gogorra. 2. Gure herriko parkea, Larre industrialde ondoan. Lehoiaren oihu. 3. Erbioa balio du. Alemaniako hiria. 4. Detektagailu mota. Argudio bidez eusten zaion ideia edo teoria. 5. Izutu. ... egin, enpo egin, asebeta. 6. Pinu. Joan zaitetz! Bokal biribila. 7. Eromenaren hasieran. Ipar Euskal Herrian jardun zuen talde armatuaren siglak. Arrantza gunea. 8. Intsektu mota. Kasik. 9. Arabako alderdi politiko ohia. Aspertua, nardatua. 10. Ahuntzaren ar. Nauka. Kontsonantea..

**Goitik behera**


1. Gurean badugu estali gabeko bat, igerilarien pozgarri. 2. Erokeriak. 3. Azpi. Errepikatuz, ikara. Kontsonantea. Bokala. 4. Sasoi. Gizon izena. 5. Urtaroetako bat, udazken. 6. Iodoaren ikur kimikoa. Bokala. Harrapa ezak! Garai bateko piraten gustuko edari bizi 7. Prezioak. Bokal errepikatua. 8. Txerri. Zauzka. 9. Nafarroa Garaiko udalerrria, Leitزارanen. Hego Euskal Herria osatzen duten herrialdeak bezainbat. 10. Kono formakoa. Kanpo, landa.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2						■				
3			■							
4						■				
5								■		
6				■					■	
7			■			■				
8							■			■
9			■							
10					■				■	

|||HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Apirilak 27 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Soreasuko Sormen Gunea, 1. solairua (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali, edo atera argazkia eta posta elektronikoz bidali.

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

O	R	A	Z	A	●	O	R	I	A	K	●	
N	A	N	Z	O	●	A	L	I	A	V	S	
●	D	U	●	R	A	K	U	●	O	L	●	
O	N	A	K	I	R	A	G	A	N	E	P	
A	I	A	R	G	●	A	R	A	P	I	L	●
M	●	A	N	●	K	A	R	A	M	E	A	K
●	E	M	U	K	A	T	A	K	●	M	●	
I	R	A	K	I	M	I	K	●				
A	B	●	A	N	O	Z	I	G				
●	K	●	B	●	K	●	N	●				

SUDOKUA

9	4	3	1	8	7	6	2	5	1	8	9
8	7	8	6	2	4	5	7	8	1	9	3
6	7	8	9	5	3	1	2	6	4	7	8
2	3	1	4	5	6	3	2	9	8	7	1
7	1	4	2	6	9	8	5	7	3	1	4
1	6	5	2	3	7	8	4	9	1	6	5
3	2	4	5	8	9	6	7	1	3	2	4
4	7	6	1	5	3	2	9	8	4	7	6
5	8	3	9	4	1	7	2	6	5	8	3

|||UZTARRIAREN MARTXOKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA

Edurne Agirre Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 125. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa, baina koronabirusagatik ezarrita dagoen alerta egoera bertan behera uztean eskuratuko du saria. Uztarria jarriko da berarekin harremanetan.



**URDAIAZPIKO,  
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:  
**EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA**



Eñaut: 656 79 14 19  
Oier: 618 24 01 73  
kutxillo@gmail.com  
Damazo Azkue 6  
AZPEITIA



# Euskal migrazioak (eta II)

**A**urreko idatzian genion euskal migrazioaren historian zein garrantzitsua izan zen XIX. mendekoa. Jakin dezagun, axaletik bederen, nola moldatzen ziren hain bidaia luzeak egiterakoan; gehinetan zoriz gaitzez jositakoak eta batzutan, tamalez, tragedian bukatzen ziren bidaiak. Horietako kasua da *Leopoldina Rosa* fragatari gertatutakoa.

Kontua da, bidaia egiten hasten zirenak ez zirela pobreenak. Izan ere, baliabiderik gabe ez zegoen modurik bidaia ordaintzeko. Maiz, erabakia hartzerako, aurrez senideren bat izango zuten "amestutako" lurraldean eta hark helarazitako deiari jarraiki ausartuko ziren urratsa egitera. XIX. mendean, emigrazioa sustatzeko enpresak sortu ziren, batik batik Ipar Euskal Herrian. Boteredun eta dirudun jauntxoek eskutan zegoen Ameriketara jendea garraiatzeko kudeaketa. Era berean, hango gobernuak ziren emigrazio bultzatzaile nagusienak, etorkinei abantailak eskainiz. Egia da, ordea, odisea hasten zuten askok eta askok ezer gutxi galtzeko zutela, eta bidaiaren baldintzez-eta informazioa eskas. Bidaia haietako batean, 1881. ean *Mariscal Excelmea* ontzian gertatutakoaren kontakizunada hau: "...285 pasaiari ontzigainean bilduta. 130 besterik eraman behar ez zituela esan ziguten. Baina ordezkarien eta armadoreen artean ia 300 sartu zituztela eta, ondorioz, jakiak agortu zirela eta egun bateko errazioak zortzi egunerako behar zuela izan, bestela antropofago bihurtu beharko genuela". Lurraldera iritsitakoan, sarritan harrera ez zen espero zena izaten. Gobernuak aurrez egingutako promesak ezerezean gelditzen ziren. Areago oraindik: bidaia ordaintzeko erdi esklabotzan aritutako euskaldunen testigantzak bildu dira.


## 'Leopoldina Rosa'

1842ko apirilean Baionan ontziratu ziren 240 migratzaile Montevideoruntz, bizi bal-



||||||| Luis Gurrutxaga |||||

||| Bidaia ordaintzeko erdi esklabotzan aritutako euskaldunen testigantzak bildu <Ninguno> dira.



dintza hobeen bila. Bada, itsasoratzea urtarilaren 20an zuten aurreikusia. Beraz, bi hilabete luzez, portutik urrun bizi zirenak nekez biziko ziren, bidaia txartelean aurrezkiak xautu ondoren. Zergaitik hainbesteko atzerapena? Besteak beste, Baionako barra perilosagatik, eta batik batik, itsasoaren egoerengatik. Irten aurretik bi bidaiari hil ziren, istripuz. Helmugara iristear zudela, ekainaren 9an, hiru eguneko ekaitza jasan ondoren, Castillo izeneko kostaldean zegoen uharrira jo zuen ontziak. Lurra gertu zegoen, baina migratzaile gehienek ez zekiten igerian. Soka bat itsas ertzera eramaten saiatu ziren, baina ekaitzak galarazi zien. Bidaiari gehienak kabinan babestu ziren, baina ekaitzaren atzaparretan hainbeste ordu pairatu ondoren, ontziaren hondakinak hondoratu ziren. 72 bidaiari bakarrik irten ziren bizirik. Elisabeth Salaberriren testigantzan oinarritutako kontaketa da hau, bere ahizpa Kattalinekin batera bizirik ateratako migratzailea. Biak lekuko izan ziren nola Hipolito Frappaz kapitaina, guztiz akituta, bertan hil zen. Imajinatzen dut hurrengo egunetan Uruguaiako itsasertzeko panorama hura, gorpuak uretan kulunkan. Hunkigarria. Gaur egun barruak berdin astintzen zaizkigu Greziako, Italiako edo beste irtetako ur ertzetan etorkinen hilotzak ikusita. Historia errepikatu egiten omen da. Egia.

Bi ataleko idatziari amaiera emateko, honatx aholkutxo bat, irakurle: Amets Arzallusen eta Ibrahima Bale ginear etorkinaren *Miñan* liburua irakurtzea. "Ibrahimaren bizitzaren kronika da nobela hau, hark ahoz eta Ametsek letraz idatzia", dio azalak. Azala pinportatzeko ez ezik, barruak astintzeko modukoa. ✘

# Aprobetxatu

**M**unduan ondoen elikatutako ezterriak harasketako tutueriak direla esan ohi da. Nork ez du noizbait janaria bota, edo irteerarik ezin emandako janariz beteta topatu hozkailua eta izozkailua? Dena jan ahal izateko denbora falta... Hori da marka!

Egunerokotasunean, eta gaur inoiz baino gehiago, premiazkoa dugu aprobetxamenduko sukaldaritza, momentuan ditugun osagaiei irteera egokiena eman ahal izateko. Kozinatzerakoan, beharrezkoa dugu soberan gelditu zaizkigun osagaiak botatzeko ohiturarik ez izatea, eta gauza bera soberan gelditu zaizkigun janariekin ere. Izan ere, horiekigarrengo bitzitza bat izan dezaket! Dena dela, horiek ondo aprobetxatu eta kontserbatu ahal izateko, beharrezkoa da ondo ontziratzea eta hozkailuan edo izozkailuan sartzea.

Zopak, entsaladak, tortillak, olio erreak... jan ondarrei probetxua ateratzeko milaka aukera ditugu.

Gisa horretan, etxekoei errezeta berriak sortzeko eta zapore berriak probatzeko aukera emango diegu. Eta gainera, kozinatzeko gaitasunak trebatzeko aukera ere izango dugu.

Gure gurasoi hainbat aldiz entzun izan diegun eta orain biziki ulertzea iritsi garen esaldia da honako hau: hemen, dena aprobetxatzen da.\*



aitziber aizpuru

# ALBERTO ZABALA zabor biltzailea



## 1. Zer lan egiten dituzu?

Kamioia gidatu, zaborra bildu, edukiontzia eta horien guneak garbitu...

## 2. Ofizioaren alderik onena?

Ez dela batere monotonoa. Gainera, asko gustatzen

zait aire zabalean lan egitea.

## 3. Eta lanaren alderik txarrena?

Urtean 365 lan egun ditugula.

## 4. Herri txukuna al da Azpeitia?

Orokorrean, bai.

## 5. Lan gehien noiz?

Gabonetako kontsumo garaian.

## 6. Gaupaseroekin topo egitean...

Normalean jendea moreko egoten da eta ez dugu arazorik izaten.\*

Maialen Etxaniz

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

Lamiaketa  
943 15 16 40

**ostadar optika**  
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS

Jose de Arretxe, 17  
Tel. 943-810654  
AZPEITIA

Isel Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**AZKOITIA**

ERLOJU  
KONPONKETAK

Aranda, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**Alar**  
merzeria

Loiolako Iazulo Hiribidea, 9  
Tel.: 688 81 87 78

**Koh Tao**

OSAEARRIAK +  
PIERDING ESTUDIODA

Jose de Arretxe, 14 - 20730 Azpeitia - 943 15 77 36

**uba**  
ENOTERATZITZA

Aholkularitza  
Fiskala  
Laguntza  
Sententziak

Goizti lanak

Finkak administratuz  
Gestio inmobiliaria

Tel. 943 157 420 Fax. 943 157 274  
Ezpeitza kalea, 41 - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

**KIRURI**

**JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08  
Faxa.: 943 15 03 62

**adi**  
ARTE ETA  
DISEÑU  
ESKOLA  
ELKARTEA

**Marraskia eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30 - 19:00

**Pintura** 16:00 - 17:30  
(helduak) 19:00 - 20:30

**Talla** 18:30 - 20:00


Jose Arretxe kalea, 3  
943 81 28 08  
aribadbarra@gmail.com  
Matrikula arte osoan zabalik

**IRENE ALTUNA**  
ORAZENDA

Loiola Bidea, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunacenda.com



# Betirako diren ikaskizunak

11 urte zituztela joan ziren fraide eskolara Iñaki Aizpuru eta Juan Mari Olaizola, eta ordutik lotura estua sentitzen dute Arantzazurekin bi azpeitiarrek; bakoitzak bere erara.  Elena Margüello

**B**izitarako ikaskizun gorra bezain polita bizi izan zuten Iñaki Aizpuru (Azpeitia, 1953) eta Juan Mari Olaizolak (Azpeitia, 1954) gaztarotan. 11 urte besterik ez zituzten mailetak egin eta Arantzazuko fraide eskolara joatea erabaki zutenean.

Sasoi hartan, Arantzazuko fraideak eskolara joaten zitzaizkiela gogoratzen du Olaizolak, hurrengo urtera begira hara nork joan nahi zuen galdezka: "Orduan ez zeuden orain dauden irtenbideak; horixe zegoen eta nik izena eman nuen". Aizpururi ere eskolan eman zioten Arantzazura joateko azken bul-tzadatxoak: "Ama eta biok belarriko min handiarekin ibiltzen ginen. Egun batean, ama Arantzazura joan zen, eta belarria igurtzi zioten, eta harrezkero, ez zuen min gehiago izan. Ni izebak eraman ninduen 9 urterekin, eta akabo nire belarriko minak ere". Arantzazuko eskolara joan nahi al zuen galdetu ziotenean, beraz, "segituan" eman zuen baiezkoa Aizpuru. "Amari sekulako nahigabea eman nion, baina han joan nintzen".

Ikasturte osoa Arantzazun igaro ostean, udan itzultzen ziren Azpeitira. "Sann Inazio festen inguruan etortzen ginen etxera, eta hamabost bat egun igarotzen genituen hemen,

eskolara itzuli aurretik", gogoratu du Aizpuru. "Ez zen ohikoa" Arantzazun gurasoen bisitak jasotzea, azaldu du Olaizolak. "Orduan ez zegoen kotxerik, eta gurasoak urtean behin egiten zen erromesaldiaren zain egoten ziren guri bisita egiteko". Hala ere, lagun-gurasoak bisitan joaten zirenean, "etxe-koen paketeren bat edo beste" iristen zitzaio-lara oroitu du Aizpuru, eta Gabonetan Pello Zabalak "pozten" zituela: "Akordeioa jotzen zuen, txistek kontatu... Ezin ginenez etxera itzuli, gu pozteko modua beti topatzen zuek hark".

Sasoi hartako egunerokotasuna samurtasunez gogoratzen dute bi azpeitiarrek. Musikarekin esnatzen ziren egunero, jantzi, garbitu eta bakoitzak bere ohea egin behar izaten zuen. Kaperan errezatu, gosaldia eta eskolara joaten ziren. Eguerdian, bazkaldu eta denbora libre izaten zuten berri eskolara sartu aurretik. Iluntze aldera, berriz, solfeo edo abesbatza klaseak izaten zituzten. Olaizolak ondo gogoratzen du bazkal orduan "banaka" pulpitura nola igotzen ziren eta bertan nola irakurri behar izaten zuten: "Beste guztiok isilik egon behar izaten genuen hura entzun bitartean. Batzuetan, hitz egiteko baimena iza-

ten genuen, baina agindu hori jaso arte, isilik egon beharra genuen".

Eskolatik kanpo, mendiarekin lotutako oroitzen asko dituzte biek ala biek. "Kirol asko" egiten zutela dio Aizpuru: "Iturri Gorri deituriko toki bat dago Urbia azpian, eta han futbol zelaia eta baratzeak genituen". Aizpuru badu egun horietako oroitzen. "*Día de campo* delakoak egiten genituen urtean bizpahiru aldiz", gogoratu du. "Urbiara joaten ginen, gosaldia, eta eguerdira arte, denbora libre izaten genuen". 13 urte inguru zituela, beste sei lagunekin batera Aizkorri aldera igotzen hasi eta lagun batek "hik ba al dakik Aizkorritik San Adrianera jaisten?" galdetu ziola gogoratzen du Aizpuru. Eta hark baietz erantzun ziola dio, lehenago ere bi aldiz egina zuela buelta hura eta: "Horixe egitera joan ginen, eta lainoa sartu zen. Behera eta behe-ra joan ginen, eta konturaterako, Zegaman azaldu ginen. Eguerdian, denak gure bila aritu ziren Urbian. Guk, berriz, taxi bat hartu genuen Zegaman, eta Arantzazura itzui ginen. Gero, handik berri Urbiara". Fraide-en "ardura aurpegiak" gogoan ditu.

Oroitzen "gogorrak" zein "politikak" ekartzen dizkie Arantzazuko Olaizolari eta Aiz-



Arantzazuko ikasleak eta fraideak. Laugarren ilaran, erdi-erdian, aurreko ilarako fraidearen atzekoa da Aizpuru. ||| Iñaki Aizpuru utzitakoa

pururi. Garai hark bizitarako "oinarri oso onak" eman zizkiola adierazi du Olaizolak: "Naturarekin kontaktu handia izaten erakutsi ziguten, mendian ibiltzen. Naturarekin harremana izateko leku oso ederra da Arantzazu. Leku berezia da, bakartia; norbere buruarekin egoten ikasi genuen, eta horrek gerorako asko balio izan dit". Aizpuru bat dator Olaizolaren hitzekin: "Zaplazteko asko jaso bagenituen ere, ikasteko modu ona zen. Gauzak errespetatzen eta gauzei balioa ematen irakatsi ziguten". Gainera, Olaizolak gogora ekarri du nondik datorkion euskararekiko sentitzen duen errespetua: "Bitoriano Gandiaga maisu izateko zortea izan genuen, eta euskararekiko sentitzen zuen interesa erakutsi zigun hark".

### Fraide bai, fraide ez...

Batak bi urte egin zituen Arantzazun; besteak, berriz, lau. Olaizolak "penatxo" bat baduela adierazi du. Izan ere, bigarren urteko udan, etxera itzuli zenean, Arantzazuko agintea zuen pertsonak "gurasoentzako eskutitz bat" eman zion: "Eskutitza ireki genuenean ikusi genuenez, hango eskoletarako ez nuela balio-edo eta hobe izango nuela etxean gelditzea jartzen zuen". Notizia hura "pena handiz" jaso zuen Olaizolak; izan ere, "tristura"

sortzen dio garai hartako Arantzazuko kultur mugimenduan ezin egon izanak. Aizpuru, berriz, lau urte pasatu zituen Oñatiko auzoan: "Kurtso bat errepikatu nuen matematikan txarra nintzelako".

Fraide eskola batean ikasi izanak ez zion Olaizolari fraide izateko gogorik piztu: "Ez nuen behin ere planteatu fraide izatea. Gai-

||| "Gero eta gutxiago dira eta konpainia gustura hartzen dute; neu ere gustura joaten naiz haiengana"

IÑAKI AIZPURU

Arantzazuko ikasle ohia

||| "Gurasoak urtean behin egiten zen erromesaldiaren zain egoten ziren guri bisita egiteko"

JUAN MARI OLAIZOLA

Arantzazuko ikasle ohia

nera, 10 urterekin ezin da jakin handitan zer izan nahi duzun". Aizpuru, aldiz, "planteatu" izan zuen fraide egitearena, "erromes ibiltzea edo horrelako zerbait" izan zuen buruan. 15 urte ingururekin, ordea, "galderak sortzen" hasi zitzaizkion, eta "albo batera" utzi zuen ideia hura. Olaizolak gogoratzen du Azpeititik zortzi bat lagun joan zirela beren saioan Arantzazura, eta horietako bat iritsi zela meza ematera: "Gure hazia utzi genuela esan daiteke".

Gaur egun, biek gordetzen dute harreman berezia Arantzazurekin, bakoitzak bere erara. Aizpuru orain urte batzuk hasi zen hango koruan kantatzen, eta inguru haiekin erlazioa "pixka bat galduta" bazuen ere, orain "oso pozik" sentitzen da "berreskuratutako harremanarengatik". Ahal izanez gero, hamabostean behin abesten du Arantzazuko koruarekin: "Joaten naizen bakoitzean esaten didate berarekin bazkaltzen geratzeko. Gero eta gutxiago dira, eta konpainia gustura hartzen dute; neu ere gustura joaten naiz haiengana". Olaizolak, bere aldetik, "bakardadean" bizi duen harremana du Arantzazurekin. "Noizean behin eta bakarrik" joaten dela adierazi du: "Eskutitz hark fraideekiko distantzia bat eragin zidan, baina tokiarekin harreman ederra dut".\*



## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ekoetxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	853297
DYA-Donostia	464622

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

## FARMAZIAK (APIRILA)

1-4-5-7-22-29

Jacome (Azpeitia).  
943080258

9-10-11-12-13-20-30

Aranburu (Azpeitia).  
943811350

2-6-8-14-24-27

Beristain (Azpeitia).  
943 811949

15-17-21-25-26-28

Alberdi (Azpeitia).  
943815974

3-16-18-19-23

Arrieta (Azpeitia).  
943811274

GAUEZ, URTE OSOAN

Aranburu (Azpeitia).  
943811350

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 29an izango  
dute hitzordua, 17:00etatik  
21:00etara.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### OSASUN ARRETA.

COVID-19 dela eta, osasun zerbitzuekin harremanetan jarri nahi duenak bere herriko ambulatiora deitu beharko du. Telefonogune batera bideratuko dute, eta han azalduko diote nola jokatu

### GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:  
[www.uztarria.eus/azpeitia/](http://www.uztarria.eus/azpeitia/)  
autobusak

# MIKEL BENITEZ

Tabakalerako Terzi kafetegiaren kudeatzailea

“Galdu bada ere, guk eutsi egin diogu kafearen kulturari”

Ostalaritzarekin lotura estua dute Benitez anaiek. Kafean adituak izanik, Taba-ko Terzi kafetegian dabilta buru-belarri. ✍ M. Etxaniz

**N**ondik dator kafearen munduarekiko interesa?

Nik eta nire bi anaiek urte asko daramatzagu ostalaritzan lanean. Pertsona batzuk sukaldaritzan, izozkigintzan, gozogintzan edo ardogintzan espezializatu dira, eta guk kafearen kulturaren aldeko hautua egin dugu.

**Noiz eta zergatik erabaki zenuten sektore horretan murgiltzea?**

Izaro tabernan hazi ginen, eta han garrantzia handia ematen zitzaion kafeari: makina zaintzea, garbitzea, kafe krematsu ona egitea, motza, indartsua... Ondoren, Keizpe ireki genuen Azkoitian, eta han jarraitu genuen kafezaletasuna garatzen. Urteekin, galtzen joan da lehen kafetegietan-eta kafearen bueltan zegoen kultura, baina guk eutsi egin diogu.

**Nolakoa izan da ikasketa prozesua?**

Luzea, eta neurri batean nahi gabekoa. Urteetan saiatu gara bezeroei ahalik eta kaferik onena eskaintzen. Terzi familiarri esker hainbat balore ere barneratu genituen, eta horiek hona ekartzen saiatu gara. Manuel Terzik Bolonian (Italia) duen Terzi etxean hasi zen dena. Haiei esker ikasi dugu kafearen erauzketa metodoak lan-tzean. Asko ikasi genuen kafearen tuesteaz edo jatorri desberdinetako aleen analisi sen-tsozialaz, baita koktelgintzaz

ere. 30 urteko ibilbidearen ostean, ikasten jarraitzen dugu.

**Batzuek "kafearen tenplua" deitzen diote zuen kafetegiari...**

Baliteke kafearen tenplu txiki bat izatea gurea. Izan ere, kafea da produktu izarra, eta leku gutxitan mimatzen da guk egiten dugun bezala. Kritika polit ugari jaso ditugu, baina gehien gustatu zaiguna Mikel Zeberio gastronomia-kritikariarena izan da. Hark esan zuen urteotan Euskal Herrian irekitako "negoziorik zoroenetakoa" izan dela gurea.

**Kafearen mundutik zerk erakartzen zaituzte gehien?**

Transmititzen duen energiak eta bere inguruan sor dezakeen guztiak; izan ere, tradizio, transmisio, komunikazio, doktrina eta erritua gisa uler daiteke kafearen kultura. Espressoaren mundua garatzen ari da etengabe, nahiz eta batzuek tradizional gisa ulertzen duten.

**Gaur egun Donostian duzue negozioa. Zer du Donostiak Azpeitiak ez duena?**

Hastapenetan, bagenekien Azpeitian ez genuela kafe gourmeta dastatuko zuen bezeroerik aurkituko. Proiektua bideragarri izateko leku egokia behar genuen, eta Donostiara joan ginen. Egun, zorionez, Azpeitian ere kafe oso onak har ditzakegu.✘



1. Benitez kafe bat prestatzen Terzi kafetegian. 2. Munduko herrialde askotako kafeak dituzte kafetegian. 3. Tabakalerako beheko solairuan, Taba gunean, dago kafetegia kokatuta.





# Orro

# U

ste dut herri osoa bildu zela kanposantuko Abitainen. Barruan, esate baterako, ez zegoen denontzako lekurik, ez ginen sartzan, bata bestearen kontra-kontra egonda ere. Zer zen hura, bada! Jendez betebetea barrua, eta, hala eta ere, jende mordoak kanpoan. Eta, bestalde, autoak, aldaparen alde batetik eta bestetik kanposanturaino etorritakoak.

Geu ginen protagonista egun hartan. Hildakoa, berez, baina oraindano arte hildakoez ez dutenez ezer esaten ikasi, geu hileta egun hartako izar. Alfonbra gorrian bagindoz bezala, jende ilara ezker-eskubi bide bazterrean, tente, eta baten batzuk autoen barruan, eta gu paretik pasatzean haiek denak burua makur, errespetua erakutsiz bezala, nahiz eta nik ez dakidan norentzat zen errespetu hura, guretzat, hildako senideontzat, edota hildakoarentzat. Oso gauza arraroa zen, azken juizioko eguna ematen zuen hark, eta Abitainek, berriz, Josefateko zelaia. Herri osoa etxetik atera zutela zirudien, turuta hotssez atera ere, hantxe bildu zirela denak. Bel-durra ematen zuen. Akordatzen naiz emakume hura ikusia. Karmele. Andrearen lagun mina. Tente zegoen, auto baten kontra, bere gizonetakoaren ondoan. Haur eder bana zeukan besoetan hartua. Bikiak. Handiak, haurrak, ama bezain handiak ematen zuten. Titia ematen ari zen, eta emateko prestatzen, brusako botoiak askatuta zeuzkan, behintzat, eta haurrak ere bat ezkerreko errapera, beste eskubikora ari ziren. Baina ez zuten asmatzen, eta, amak ere, segizioari begira, geldidun, ez zituen haurrak titietara eramaten, eta hankagorriek, bitartean, ez zuten makorero eta mugimendu bihurriak egiten beste-rik. Titietara ailegatu nahi. Ama, beti geldirik, beti burumakur, mundu guztia bezala.

## Esportatzeko lain

Kanposantuko ateak pasatu genituenean, hilibira zuzendu ginen. Ondoan nituen Arantxa



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Gauza arraroa zen, azken juizioko eguna ematen zuen hark, eta Abitainek, berriz, Josefateko zelaia

eta Joakin, joan eta jakin, eta Igor eta Garazi, joan eta ikasi, hilibiaren aurrean. Orduan, erresponsua errezatzen hasi zen abadea.

Eta ez dakit zen On Juan, On Lorentzo, On Bartolome, On Jabier, On Jose... hainbeste abaderen artean ez dago-eta erraz jakiten. Zenbat abade, eta moja, gure herrian! Erregalatzeko lain. Esportatzeko lain, esan nahi dut. Eta, egia esan behar bada, horixe egin genuen urte askoan, abade, fraide eta mojak esportatu. Hortik ikasi genuen burdina, makina eta erreminta eta beste gauza asko ere esportatzen.

Eta dena delako abadea erresponsua errezatzen hasi zen, eta kantuan "Piztu da Kristo, aleluia, gu baitan dago, aleluia", "Hau da Jainkoaren bildotsa, Kristo Jesus, heriotza zapaldu zuena", eta berak beste inork sinesten ez zituenak esaten, hobeto daudela hildakoak biziak baino, eta hau eta hura, ezin isilduan, gauza sakonak esaten ariko balitz bezala, eta korukoak ere kantatzen, Putxiniri, edo Xuberti, kasurik egin gabe, eta... ez zen ederra. Orro egin nahi nuen kanposantuko Abitainen.\*



# TiEN21 ESNAOLA

**ZATOZ**  
DENDA BERRITUA  
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · [esnaelek@outlook.com](mailto:esnaelek@outlook.com)





**BERTAN GEUNDEN,  
BERTAN GAUDE  
ETA BERTAN EGONGO GARA.  
ELKARREKIN LORTUKO DUGU!**

*Azpeitiko Merkatarien Elkarte*

